


2013

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

TXOSTEN EXEKUTIBOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Egilea: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

2014ko otsaila

ÍNDICE

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUAREN SARRERA	5
I. 2013KO PROBETAKO APLIKAZIOEN EZAUGARRIAK ETA DATUAK	9
1.1. APLIKAZIO PROZESUA.....	11
1.2. EBALUATUTAKO POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA	14
1.3. EMAITZEN AURKEZPENA.....	21
1.4. KONTUAN IZAN BEHARREKO ZENBAIT IRIZPIDE	22
2. EMAITZAK OINARRIZKO KONPETENTZIEN ARABERA	25
2.1. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	29
2.1.1. Emaita orokorren bilakaera.....	29
2.1.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	30
2.1.3. Emaitzak geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea	30
2.1.4. Emaitzak familia-hizkuntzaren arabera	34
2.1.5. Emaitzak dimentsioen arabera: entzumena eta irakurmena	36
2.1.6. Emaitzak idazmenean.....	39
2.2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	41
2.2.1. Emaita orokorren bilakaera.....	41
2.2.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	41
2.2.3. Emaitzak geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea	42
2.2.4. Emaitzak familia-hizkuntzaren arabera	46
2.2.5. Emaitzak dimentsioen arabera: entzumena eta irakurmena	46
2.2.6. Emaitzak idazmenean.....	48
2.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	51
2.3.1. Emaita orokorren bilakaera.....	51
2.3.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	51
2.3.3. Emaitzak geruzen arabera:hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	52
2.3.4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.....	56
2.4. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIA	59
2.4.1. Emaita orokorren bilakaera.....	59
2.4.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	60
2.4.3. Bilakaera geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea.....	60
2.4.4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.....	64



2.5. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA	69
2.5.1. Emaidza orokorren bilakaera.....	69
2.5.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	69
2.5.3. Emaidzak geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea.....	70
2.5.4. Emaidzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.....	75
3. EMAITZAK ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA	79
3.1. EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA	83
3.1.1. Emaidza orokorren bilakaera.....	83
3.1.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.....	85
3.2. IKASMAILAREKIKO ADIN-EGOKITASUN EGOERAN EGOTEA	93
3.2.1. Errendimendua konpetentzietan 2013an.....	93
3.2.2. Emaidzen bilakaera.....	94
4. 2009 ETA 2013 ARTEKO HOBEKUNTZA PROZESUEN AZTERKETA ETA HELBURUEN LORPEN MAILA.	97
4.1. AZTERKETA EMAITZA OROKORRETATIK ABIATUTA. Ikastetxeen puntuazioaren murrizketa eta igoera adierazgarria 2009 eta 2013 artean.....	101
4.2. AZTERKETA ERRENDIMENDU MAILETATIK ABIATUTA.	105
4.2.1. Hasierako mailan eta mailan aurreratuan, ikastetxeen arabera, bilakaera ikasleen ehunekoetan.....	105
4.2.2. Ikasleen ehunekoaren arteko aldeak errendimendu mailen eta konpetentzien arabera 2009 eta 2013 artean Euskadin.....	106
5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA	111
5.1. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA: BALIO ERANTSI HANDIA ETA TXIKIA DUTEN IKASTETXEAK	113



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAILBURUAREN SARRERA**





Ebaluazio diagnostikoa baliogarria da ezagutzeko bai ikasleen konpetentzi mailak bai eta ezagutzeko ikastetxeen egoera eta hezkuntza sistemaren egoera globaltasunez. 2008-09an egin zen lehen aldiz azterketa hau, eta ordutik, azterketa honen lau edizio egin dira, Horrek esan nahi du ebaluazio-prozesu hau gure hezkuntza-sistemaren eta ikastetxe bakoitzaren hobekuntzarako tresna estrategiko gisa hartu dela. Euskal hezkuntza komunitatean eta parlamentu alorrean bada ebaluazio-sistema on eta sendoa izatearen garrantziari buruzko oinarritzko akordio bat, bere ezaugarriekin, eta gure behar eta prozesuetara egokitua.

Tresna honek hezkuntza-administrazioari informazio zabala, zehatza eta iraunkorra ematen dio, eta bestetik, erreferentzia garrantzitsu bihurtu da hezkuntza-politikaren joera zehazteko eta ikastetxeen eta irakasleen arreta-estrategiei, prestakuntzari eta aholkularitzari koherentzia emateko. Sailaren hiru zerbitzuek, hau da, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (Berritzegune) elkarrekin garatutako ebaluazioa da; guztiak Hezkuntza Sailburuordetzak koordinatzen ditu. Hiru zerbitzu horien arteko lankidetzak sinergiak sortzen ditu laneko prozesuetan eta jarduerari koherentzia ematen laguntzen du.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeei beren egoerari buruzko informazio erakargarria eta testuinguruari egokitutakoa eskaintzen die, eta lau edizioen ostean, emaitzen bilakaerari buruzko informazioa ere eskaintzen du. Gainera, antzeko errealitateak alderatzen ditu, bai egoera sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera, bai hezkuntza-sarea eta hizkuntza-ereduaren arabera.

Txosten exekutibo hau argitaratuz, ebaluazio honetan parte hartu zuten eta funts publikoak jaso zituzten Lehen Hezkuntzako 524 ikastetxeri bidalitako ikastetxeko txostenekin, eta familiei entregatutako 20.000 txosten indibidual baino gehiagorekin batera, faserik garrantzitsuenari eman zaio hasiera: ikastetxearen hobekuntza-planen inguruko gogoeta egitea eta plan horiek berriztatzea. Hori da ebaluazio-prozesu honen guztiaren azken helburua.

Ebaluazio diagnostikoaren bidez, euskal gizarteari hezkuntza-sistemaren egoerari eta aurrerapenari buruzko kontuak eman nahi dizkiogu. Horretarako, eskolak bizitzarako nola prestatzen duen baloratu dugu eta gure ikasleak, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ordezkari gisa hartuta, gizarte moderno, ireki, aldakor eta gero eta konplexuago honetan herritar gisa jokatzeko zenbateraino dauden prestatua ikusiko dugu.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua
Cristina Uriarte





I. 2013KO PROBETAKO APLIKAZIOEN EZAUGARRIAK ETA DATUAK





Ebaluazio diagnostikoak oinarrizko kompetentziak neurtzen ditu. Hori dela eta, ikastetxe bakoitzean egindako curriculum-garapen zehatzetik berezita dago. Kontzeptuaren inguruan onarpen unibertsalik egon ez arren, adituak gutxi gorabehera bat datoz kompetentzia gakoak edo oinarrizko kompetentziak edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkotzat edo mesedegarritzat hartu ohi izatean; halaber, adostasun komuna dago beharrezko kompetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrerren multzo" gisa ulertzeko.

Ikuspegi honetatik, alor edo jarduera batean trebea izateak alor horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatze eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko gaitasuna duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak egoki aukeratzeko eta modu eraginkorrean aplikatzeko, egoera zehaztetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta hezkuntza-esperientzietatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak konpontzeko.

2009an sortu zenetik, Ebaluazio diagnostikoaren antolaketa bi alorretan egituratzen da: batetik, alderdi finkoa. Bertan, edizio guztietan izaera instrumentalea duten hiru kompetentzien ebaluazioa –*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* eta *Matematikarako kompetentzia*– egiten da, betiere, egoera ahalik eta zehatzen eta iraunkorren neurtzeko. Bestetik, alderdi aldakorragoa. Bertan, oinarrizko irakaskuntzen martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuan zehaztutako gainerako kompetentziak ebaluatzen ari dira jarraian.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED13), aurreko hiru edizioetan ebaluatutako oinarrizko kompetentzia finkoek gain (*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* eta *Matematikarako kompetentzia*), bigarren aldiz ebaluatu dira *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia* (2009an ebaluatu zena) eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia* (2010ean ebaluatu zena). Gainera, lehen aldiz ebaluatu da *Ikasten ikasteko kompetentzia*. Hori horrela, aplikazio honetan egindako eskemaren bidez, emaitza alderagarriak izan ditzakegu bost kompetentzietan, eta erreferentzia-puntu berri bat izango dugu orain arte ebaluatu gabeko kompetentziaren bidez.

Hurrengo taulan, oinarrizko kompetentzia bakoitzaren egoera ikus daiteke ebaluazio-prozesuari dagokionez:

OINARRIZKO KOMPETENTZIAK	ED09	ED10	ED11	ED13
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	✓	✓	✓	✓
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	✓	✓	✓	✓
Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia			✓	
Matematikarako kompetentzia	✓	✓	✓	✓
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia	✓			✓
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		✓		✓
Ikasten ikasteko kompetentzia				✓
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia				Pilotua
Giza eta arte-kulturarako kompetentzia				
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia				

I.1. APLIKAZIO PROZESUA

Lehen Hezkuntzan, Ebaluazio diagnostikoa 2013ko apirilaren 19 eta maiatzaren 17 artean egin zen. Probetako itemak kompetentzia bakoitzeko aditu taldeak egin zituen, eta ISEI-IVEIko teknikariek koordinatu



zituzten. Ikasleen proben aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena eta ISEI-IVEIrena izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordu eta erdikoa, eta lau ordu artekoa izan zen. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko hiru proba egin zituzten. Konpetentzia jakin baten inguruko proba batetik bestera 20 eta 30 minutu arteko atsedenaldira izan zuten. *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion bi probak egun desberdinetan egin zituzten, beti ordena berdinean.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak batera ebaluatu ziren, bien itemez osatutako bi koadernotan, banatutako proba misto baten bidez. Ikasleek, bi konpetentzia horietan, ez dituzte galdera berberak erantzun. Izan ere, koaderno bakoitzean, zati bat komuna edo berdina zen, eta beste zati bat desberdina. Horrela, konpetentzia bakoitza zabalago ebaluatu ahal izan da, baina ezin dira banakako emaitzak eman.

Konpetentzia finkoetan gertatzen ez den bezala, *Kultura zientifikoko konpetentzia* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* neurtzeko modua, 2013ko edizioan, ez da bi konpetentziak lehen aldiz ebaluatu zireneko berdina izan. Lehen, konpetentzietako bakoitza modu independentean eta ikasle guztientzako koaderno komun bakarrarekin ebaluatu zen, eta 2013an elkarrekin ebaluatu ziren. Egoera hori emaitzei eragin ziezaikeen faktorea izan zitekeen. Hala ere, zaila da zenbatera arte eragin dien jakitea.

Ikasten ikasteko konpetentziari dagokion probako itemak erantzuteko, ebaluazio honetan parte hartu duten ikastetxe bakoitzeko ikasgela bateko ikasleen % 50en (gutxienez) lagina aukeratu zen. Lagin honen bidez, euskal hezkuntza-sistemako geruza bakoitzaren eta Komunitate mailaren emaitza fidagarriak izan ditzakegu; hala eta guztiz ere, laginen ezaugarriei erreparatuz, ezinezkoa da ikastetxe mailan eta banakako mailan datuen ekarpena egitea. Txosten Exekutibo honetan ez dira konpetentzia honen emaitzak aurkezten, eta txosten monografiko batean emango dira ezagutzera.

Idazmenari dagokionez, Komunitate mailako emaitzak lortu nahi zirenez, proba horiek lagin batean aplikatu ziren modu kontrolatuan. Aurreko konpetentziaren kasuan bezalaxe, ikastetxe bakoitzeko ikasgela bateko ikasleen % 50ez zegoen osatuta, % 25eko banaketarekin hizkuntza bakoitzean, hau da, euskara eta gaztelania. Horrez gain, Hezkuntza Sailak ISEI-IVEIk emandako ereduak, irizpideak eta adibideak bidali zizkien ikastetxeei, haiek egin zezaten, baina borondatez, betiere.

Ebaluatutako oinarrizko konpetentziak		Proben iraupena
Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia: Entzumena eta Irakurmena	Euskara	45 minutu
	Gaztelania	45 minutu
Matematikarako konpetentzia		45 minutu
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia		45 minutu
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
Ikasten ikasteko konpetentzia (lagina)		35 minutu
Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia: Euskarazko eta gaztelaniazko Idazmena (lagina)		35 minutu



Errendimenduko probaren aplikazio-ordena, 2011ko proban erabilitako ordenari jarraituz gauzatu zen. Honako hau izan zen:

Aplikazioa: lehenengo eguna	Aplikazioa: bigarren eguna
1. proba: Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioa	1. proba: Euskarazko hizkuntza komunikazioa
2. proba: Matematikarako konpetentzia	2 proba: proba mistoa - Zientzia kulturako konpetentzia. - Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
3. proba:: proba ezberdinak y item berrien pilotajea.	Galdesorta.

Errendimendu-probez gain, ikasleek familiarekin lotutako informazioa biltzen zuen 30 minutuko galdera-sorta ere bete zuten gai hauen inguruan: jabetzak, kultur ondasunak, gurasoen ikasketak, etxeko egoera eta abar. Beste galdera batzuek hauek ezagutzea ahalbidetzen zuten: jatorria, familia-hizkuntza, ikastetxez kanpoko jardueretan parte hartzea eta ikastetxearekin lotutako gaiak, ikasleak ikasketekiko duen jarrera edo arlo jakin batzuekiko nahiak. Era berean, aplikazio honetan, zientziekin eta hezkuntza bereziko ikasleekiko jarrerarekin lotutako zenbait iritzi bildu dira.

Ikasleak emandako informazioaren fidagarritasun osoa bermatze aldera, ISEK (indize sozioekonomikoa eta kulturala) indizea (aitaren eta amaren ikasketak eta egungo enplegua, liburu kopurua, etxeko baliabideak: Internet, entziklopediak, literatura klasikoko liburuak, egunkariak edo aldizkari espezializatuak) eraikitzeke familia guztiek galdetegiko galdera guzti hauek erantzun zituzten. Horretarako ikasleek etxera galdetegia eraman zuten beraien gurasoek betetzeko. Galdera-sorta osoa erantzuteko unean, probako bigarren egunean, ikasle bakoitzak ordenagailuko galdetegian kopiatu zituen beraien familiak emandako erantzunak.

Galdera-sorta hauetan bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko harremanak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetarako: ikaslearen sexua, jaiotza-urtearen arabera eskolatuta dagoen mailaren egokitasuna, eta probako hizkuntzak eta familia-hizkuntzak hizkuntza-komunikaziokoak ez diren konpetentzien emaitzetan duen eragina.

Azkenik, ebaluazio diagnostikoen aplikazio guztietan gertatzen den moduan, hainbat konpetentziatako item berriak probatzeko aprobeztatu zuten, beste batzuen artean, Informazioaren trataera eta gaitasun digitala, hurrengo edizioan ebaluatzeko, betiere.

Ebaluazio honetako edizio bakoitzean aldaketak txertatu dira, baina ez die 2008-09 ikasturtean hasitako ereduaren oinarritzko ezaugarriei eragin: zentsukoa, estandarizatu, kanpo-aplikazioarekin eta konfidentziasun-bermeekin. Hala eta guztiz ere, 2013ko edizioan, bi egoera berri gertatu dira:

- ✓ Lehenengo aldiz, aplikazio guztia euskarri informatikoan egin da, Eskola 2.0 ekipamenduaren bidez, kanpoko USB gailu baten bidez. Papera ordenagailuarekin ordezkatzeko, Ebaluazio diagnostikoa hezkuntza-prozesuetan teknologia berrien erabilerak izan duen gorakadarekin batera kokatu behar da, eta gainera, ebaluazioaren nazioarteko eredu estandarri hurbiltzen gaitu (PISA 2015ean aplikazio osoa ordenagailuan egingo da). Gainera, paperaren kontsumoa nabarmen murriztu ahal izan da. Horrek ingurumenean duen eragina nabarmen murriztu da eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleek parte hartzeko baldintza hobekak eskaini dira.
- ✓ Hau izan da ikasleen emaitzen luzetarako alderaketa gauzatu ahal izan den lehen aldiz; izan ere, 2009an lehen ebaluazioan parte hartu zutenek, Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeudenean, ED13n hartu dute parte DBHko 2. maila egiten ari zirela. Datu horiek biltzea zaila izan da; izan ere, ez zegoen lehen



edizioan parte hartu zuten ikasleen identifikazio-koderik eta ikasleen galdera-sortaren arabera egin behar izan da.

I.2. EBALUATUTAKO POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA

Zentsuko ebaluazioa zenez, 2013ko proban, aurreko edizioetan bezala, diru publikoarekin mantendutako 524 ikastetxeetan (publikoa zein itunpekoa) eskolatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiak parte hartu zuten. Honelakoa izan da EDko lau edizioetan ebaluatutako populazioa:

Lehen Hezkuntzako 4. maila				
	ED09	ED10	ED11	ED13
Ikastetxe kopurua	518	522	524	524
Talde kopurua	964	982	988	1.023
Ikasle kopurua	18.236	19.036	19.254	20.683

Ikus daitekeen moduan, 2013ko edizioa da edizio guztien artetik ikasle kopuru handieneko edizioa, 2009ko lehen edizioan baino 2.447 gehiago, eta 2011ko azken edizioan baino 1.429 gehiago. Maila honetan eskolatutako ikasle guztiak probak egin ahal izatea bermatzeko ahalegin berezia egin da, egoera edo ezaugarri pertsonala edozein izanda ere. Hain zuzen ere, proba euskarri informatikoan egiteak ikasle horien parte-hartze baldintzak hobetzea ahalbidetu du. Adibidez, entzumen-zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, zeinu-hizkuntzara egokitutako bideo bat prestatu zen entzumen-probarako; eta ikusmen-zailtasunak dituzten ikasleentzat, berriz, programak hizkiaren tamaina handitzeko aukera ematen zuten.

Hala eta guztiz ere, Ebaluazio diagnostikoaren araudiak adierazten duen moduan, eta nazioarteko ebaluazio guztietan ohikoa den moduan, zenbait ikaslek lortutako puntuazioa ez da kontuan hartu ikastetxeetako eta taldeetako batez besteko puntuazioa kalkulatzeko garaian¹.

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailan matrikulatuta dauden ikasleen inguruko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; beste nolabait esanda, maila horietan 2013. urteko Ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Taulako zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

1. *Ikasleak, guztira:* maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten.
2. *Proban bilduta dauden ikasleak:* Printzipioz probak egiteko baldintza guztiak betetzen zituzten ikasleak dira.
3. *Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak:* ebaluatutako taldeetan eskolatutako ikasleak dira, baina haien emaitzak ez dira kontuan hartu ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: ebaluatutako kompetentziarekin zuzenean lotutako alderdian CEIren bat zuten, euskara salbuetsita zuten, edo, nahiz eta probara joan, maiz joaten ez diren taldekoak ziren; etorkinak ziren urtebeteko eskolatzeari baino gutxiagorekin, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; eskolatzeari osagarria den programa bat ari ziren egiten.
4. *Aurkeztu ez diren ikasleak edo haien datuak galdu diren ikasleak:* proban sartuta dauden eta ebaluazioa egin beharko zuketuen ikasleak dira, baina gorabehera ezberdinak direla eta, proba-egunean ez ziren bertan izan, edo datuak galdu egin dira informatika-aplikazioaren prozesuan.
5. *Proba egin zuten ikasleak:* probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta Komunitateko emaitza orokorretan.
6. *2013an proba egin zuten ikasleen ehunekoa:* 2013an proba egin zuen ikasleen ehunekoa. Horien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta komunitateko emaitza orokorretan.
7. *2011n proba egin zuten ikasleen ehunekoa:* 2011n proba egin zuen ikasleen ehunekoa. Horien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta Komunitateko emaitza orokorretan.

¹Hauek ziren puntuazioan txertatuta ez egoteko arrazoi bakarrak: probak egitea galarazten zien CEIren bat izatea, euskal hezkuntza-sisteman duela urtebete baino gutxiago eskolatutako etorkina izatea, eta gainera, probako hizkuntza ez ezagutzea, eskolatzeko-programa osagarri bat egiten aritea edo euskaratik salbuetsia izatea.

	1. Ikasleak, guztira	2. Barne hartutako ikasleak	3. Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak	4. Aurkeztu ez diren edo galdu diren ikasleak	5. Proba egin eta puntuazioan sartu ziren ikasleak	6. Proba egin zuten ikasleen %	7. Proba egin zuten ikasleen % 2011n
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	20.683	19.885	798	1.176	18.709	94,1	87,5
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia		20.136	547	1.060	19.076	94,7	91,0
Matematikarako konpetentzia		20.106	577	896	19.210	95,5	91,3
Zientzia-kulturarako konpetentzia		20.132	551	1.164	18.968	94,2	91,1
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		20.132	551	1.185	18.947	94,1	91,1

Ikus daitekeen moduan, 2013ko azken edizioan, ikastetxeko eta Komunitateko batez besteko puntuazioan sartutako ikasleen ehunekoa 2011ko ediziokoa baino nabarmen altuagoa da, kasu batzuetan lortutakoa baino 3 puntu altuagoa batez beste, *Matematikarako konpetentzian*, esate baterako, maila honetako ikasle guztien % 95,5.


I.1.1. EBALUATUTAKO POPULAZIOAREN AZTERKETA GERUZEN ETA ISEKEN ARABERA

Indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) ikasleen galdera-sortan jasotako erantzunetatik finkatzen da eta hainbat alderdi jasotzen ditu, besteak beste, gurasoen maila profesionala, familiakoen ikasketa mailarik altuena eta ikerketek oso adierazgarritzat hartzen dituzten ondasun material eta kultural jakin batzuk edukitzea (liburuak, egunkariak, aldizkari espezializatuak, etxean ordenagailua eta Internet izatea...).

Ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa banakako datuetatik abiatuta kalkulatzen da. Balio horren batez bestekoa 0an zentratu da –Autonomia Erkidegoko batez bestekoa– eta Ieko desbideratze tipikoa du. Kontuan izan behar da ez direla maila absolutuak, etapa bakoitzean ebaluatutako lagineko ikasleekin egindako alderaketa baizik. Analisi konparatiboa egin ahal izateko, ISEK indizerako lau maila (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) finkatu dira eta mailetako bakoitzean ikasleen % 25 kokatzen da. 2013an hauek dira ISEK indizearen lau balioak:

ED13-Lehen Hezkuntzako 4. maila. ISEKen balioen tartea. Ikastetxeak			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-4,00	2,41	-0,78
Ertain-baxua	-3,87	2,59	-0,26
Ertain-altua	-4,00	2,59	0,06
Altua	-2,99	3,09	0,62

1.2.1.a. *grafikoak*, ISEK maila bakoitzaren batez besteko balioez gain, ISEK maila hauekako bakoitzean kokatutako ikastetxeetan eskolatuta dauden ikasleen ehunekoa erakusten du. Ikus daitekeen moduan, ISEK maila bakoitzean ikastetxeen ehunekoa berbera (% 25) da. Hala eta guztiz ere, maila baxuko ikastetxeek populazioaren % 18 eskolatzan dute, eta maila altukoek Lehen Hezkuntzako 4. mailako ia ikasleen herena biltzen dute. Horrek esan nahi du maila baxuko ikastetxeak, ikasle kopuruari dagokionez, tamainaz txikiagoak direla maila ertain-altua edo altuko ikastetxeak baino.




Hurrengo taulak ebaluazio honetan aintzat hartutako sei geruzetako² bakoitzaren batez besteko ISEKen balioa erakusten du, baita ED2013ko edizioan geruza bakoitzak duen garrantzia ere.

Itunpeko sarearen geruzak indize honen maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dira –jarraian ikusiko dugun moduan, aurreko edizioetan ere gertatzen zen hori–, eta sare publikoko geruzak maila baxuan edo ertain-baxuan kokatzen dira.

²Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiek derrigorrean ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala baloratzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2013ko aplikazioan ordezkatzan duen ehunekoa kontuan izatea.

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak ED 2013an duen ehunekoa
A publikoa	-1,19	Baxua	1,5
B publikoa	-0,58	Baxua	5,8
D publikoa	-0,18	Ertain-baxua	43,5
Itunpeko A	0,71	Altua	4,7
Itunpeko B	0,19	Ertain-altua	20,8
Itunpeko D	0,25	Altua	23,7

1.2.b. *grafikoak*, batetik, geruza bakoitzaren ISEK indizearen batez bestekoa erakusten du, eta bestetik, geruza bakoitzak 2013ko edizioan parte hartu duten ikasleen guztizkoan duen ehunekoaren datuak ematen dizkigu. Garrantzi gehien duen geruza D publikoa da, lagin osoaren % 43,5 inguru ordezkatzen baitu. Aldiz, A publikoa da ordezkapen gutxien duen geruza, % 1,5eko datuarekin. Lagineko ikasleen % 67 baino gehiago D ereduan dago eskolatuta, eta % 6,2 soilik ari da bi sareetako A ereduan ikasten.




Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan geruza bakoitzeko ISEK indizearen batez besteko mailak alderatzen baldin baditugu, lehen antzemandako hainbat joera berretsiko ditugu:

- A ereduan daude ISEK maila baxuena (A publikoa) eta altuena (itunpeko A) duten ikastetxeak. Bi geruzek maila hori mantentzen dute edizio guztietan.
- D geruza publikoak ere, Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan, maila berbera mantentzen du, ertain-baxua. Hori bera gertatzen da itunpeko D geruzan ere, baina kasu honetan, ISEKeko maila altuenarekin.
- B geruza publikoa maila baxua eta ertain-baxuaren artean dago lau edizioetan, eta aldiz, eredu berbereko itunpeko geruza, edizio guztietan, maila ertain-altuan mantentzen da.



Geruzak	ED09		ED10		ED11		ED13	
	ISEK indizearen batez besteko balioa		ISEK indizearen batez besteko balioa		ISEK indizearen batez besteko balioa		ISEK indizearen batez besteko balioa	
A publikoa	-1,45	Baxua	-1,35	Baxua	-1,03	Baxua	-1,19	Baxua
B publikoa	-0,52	Baxua	-0,48	Ertain-baxua	-0,46	Ertain-baxua	-0,58	Baxua
D publikoa	-0,15	Ertain-baxua	-0,14	Ertain-altua	-0,13	Ertain-altua	-0,18	Ertain-baxua
Itunpeko A	0,59	Altua	0,62	Altua	0,53	Altua	0,71	Altua
Itunpeko B	0,19	Ertain-altua	0,19	Ertain-altua	0,16	Ertain-altua	0,19	Ertain-altua
Itunpeko D	0,27	Altua	0,23	Altua	0,21	Altua	0,25	Altua

1.2.1.c grafikoa: ED13 LH4. ISEK mailen bilakaera geruzen arabera.




I.1.2. IKASLEEN EHUNEKOA GERUZETAN ISEK MAILEN ARABERA

1.2.2.a grafikoa, geruza bakoitzerako ISEK maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa ageri da. Argi ikus daiteke egoera geruza bakoitzean, ISEK mailen arabera egoeren aniztasuna eta ikasleen ehunekoen askotariko banaketa daudela.

- A ereduko bi geruzetan bi muturrak ageri dira: A geruza publikoan, ikasleen % 83,8 ISEKeko maila baxuan kokatzen da, eta itunpeko A geruzan ez dago ikaslerik maila horretan. Maila altuan, ez dago ikaslerik geruza publikoan, eta itunpeko A geruzan, maila honetan kokatzen da ikasleen % 79.
- B ereduan, alde handia nabari da ehunekoak ISEK mailen arabera banatzean: ISEKeko maila baxuan dauden B geruza publikoko bost ikasleko, itunpeko B ereduan ikasle bat dago maila horretan. Alde handi hori mantendu egiten da ISEKeko maila altuko ehunekoak aztertzen baldin baditugu: % 12 B geruza publikoan eta % 47 itunpekoan.
- D ereduan, osterara ere, ehunekoen banaketan, sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko alde handiak ikus ditzakegu: D geruza publikoan hamar aldiz handitzen da ISEKeko maila baxuan kokatutako ikasleen ehunekoa, itunpeko D ereduko datuekin alderatuz gero (% 25 eta % 2,5, hurrenez hurren). Joera berbera antzematen da ISEKeko maila altuan ere (% 12,1 eta % 46,6).




1.2.2.a grafikoa. ED13-LH4. Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa, ikastetxearen ISEKen arabera.



1.2.2.b grafikoa, 1.2.2.a grafikoko datuak ageri dira, baina 2013ko edizio honetako guztizko laginean geruza bakoitzak duen garrantzia irudikatzen dute. 1.2.1.b grafikoa ikusi dugu A geruza publikoak D geruza publikoak baino ia 30 aldiz ordezkari-tza gutxiago duela, edo itunpeko D geruzak D geruza publikoaren ordezkari-tza erdia duela.

1.2.2.b grafikoa. ED13-LH4. Ikasleen ehunekoa geruzen eta ISEK mailen arabera.



Aurreko grafikoa ondo ulertzeko, beharrezkoa da 1.2.2.a grafikoa dauden datuak kontuan izatea. Maila baxuan dagoen ikasle ehunekorik altuena D geruza publikoan dago, guztizko laginareneko % 10,9rekin. Hala ere,

ehuneko hori geruza honetako guztizko ikasleen % 25en baliokidea da, 1.2.2.a grafikoan ikus daitekeen moduan.


Ondorio orokor gisa, hauek hartu behar dira aintzat:

- Lagin osoko ISEK indizearen maila altua duten ikasleen ehuneko altuena itunpeko D eremuan dago, % 11, eta itunpeko B eremuan, % 9,8.
- D geruza publikoak, geruzarik arrakastatsuen den aldetik, erdiko mailetan ikasleen ehunekorik altuenak biltzen ditu, eta maila baxuko ikasleen kopurua maila altukoaren bikoitza da.
- Aldiz, itunpeko geruzen kasuan, ehunekorik altuenak ISEKeko maila altuan daudela nabari da. Batzuetan gainerako mailen batuketara hurbiltzen dira edo kopuru hori gainditzen dute. A eta B geruza publikoetan aurkakoa gertatzen da. Geruza horietan, maila baxuetan, ISEKeko gainerako mailak batuta baino ikasle gehiago dago.

I.1.3. GERUZA BAKOITZAK EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN DITUEN EHUNEKOEN BILAKAERA

1.2.3.a grafikoan, Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan geruza bakoitzak ordezkaten dituen ehuneko bilakaera har daiteke aintzat.

1.2.3.a grafikoan. ED13-LH4. Geruza bakoitzak ordezkaten duen ehunekoa EDko lau edizioetan.



A eta B geruza publiko eta itunpekoek Lehen Hezkuntzako 4. mailako Ebaluazio diagnostikoan ordezkaten duten ehunekoan jaitsiera arina baina jarraitua nabari da. Era berean, bi sareetan D ereduko geruzen igoera nabari da. 2009 eta 2013ko datuak alderatzen baldin baditugu, honako hau antzemango dugu:

- A geruza publikoak ordezkartza erdira murriztu du laginean.
- Itunpeko A geruzak ia % 25 egin du behera.
- B geruza publikoak % 1,6 egin du behera (% 22) bi edizioetan.
- Itunpeko B geruzak % 2,5 egin du behera. Hala ere, lagin osoaren % 20,8 ordezkaten du oraindik.



- Lehen probatik bigarren probara, D geruza publikoak egiten du gora gehien, 4 puntuko igoerarekin (% 10eko igoera).
- Bost ikasturte hauetan, itunpeko D geruza da gehien hazi den bigarren geruza; izan ere, 2009tik ehunekoak % 2,8 egin du gora (% 13ko igoera).

1.3. EMAITZEN AURKEZPENA

2013ko probako eta Txostenaren lehen atal honetan egindako laginaren ezaugarrien deskribapenaren ostean, hurrengo atalak oinarrizko konpetentzia bakoitzaren emaitzen aurkezpenaz eta hainbat aldagairen azterketaz arduratzen dira. Aurkezpenean, hau da ordena:

- Hasteko, ebaluatuko oinarrizko bost konpetentzien emaitzak erakutsiko dira (dagoeneko adierazitako moduan, *Ikasten ikasteko konpetentziaren* emaitzak laster aurkeztuko dira txosten monografiko baten bidez).
- Jarraian, emaitzetan eragin argia duten bi aldagairen azterketa aurkeztuko dute: ikasleen sexuaren eta ikasleen adin-egokitasunaren arabera.
- Azkenik, azterketako hainbat edizioren artean, ikastetxeetako emaitzen bilakaeraren azterketa eta balio erantsiarekin lotuta, eraginkortasun mailen azterketa egingo da.

Txosten honetako bigarren atalean, ebaluatuko oinarrizko bost konpetentzien emaitzak aztertzerazuzendutako atalean, beste hainbat gauzaren artean, azterketa hau eskaintzen da:

a) Konpetentzia bakoitzeko batez besteko puntuazioa.

Ohikoa izan ohi den moduan, 2013ko Ebaluazio diagnostikoaren batez besteko puntuazioa desberdina da ebaluatuko konpetentzia bakoitzean. Gogoratu behar dugu 2009. urteari dagokion lehen ebaluazioan ebaluatutako konpetentzia guztiei batez besteko estatistiko berdina ezarri zitzaizela, 250 puntukoa, 50eko desbideratze tipikoarekin, eta hori zen hurrengo probetan alderaketak ezartzeko abiapuntua³. Konpetentzia guztietan, aurreko ebaluazioetan lortutako batez besteko puntuazioak 2013ko puntuazioarekin alderaketak egiteko aukera ematen du.

b) Ikasleen ehunekoen banaketa errendimendu mailen arabera.

Emaitzak errendimenduko hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: hasierakoa, erdiko eta aurreratua. Aipatutako maila bakoitzean, ikasle batek aurre egin beharreko egoerei eta arazoei irtenbidea emateko behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak zehazten dira. Ikasle bat maila jakin batean kokatuta dagoenean, baieztatu daiteke trebea dela maila horretako eta aurreko mailetakoa gaitasunetan. Ebaluatutako oinarrizko konpetentzian desberdinak diren proben puntuazio-zatiei lotuta dago bakoitza.

- *Maila aurreratuan* kokatzen dira dagokien konpetentzian garapen maila altua duten ikasleak. Horrek esan nahi du gai direla zereginak behar den autonomiaz eta eraginkortasun maila altuaz garatzeko, eta beren ezagutzak ohikoak ez diren egoeretan edo nolabaiteko konplexutasuna duen egoeretan aplikatzeko gai direla, arrazoiak landuagoak erabiliz.
- Erdi-mailan kokatzen dira beren adina eta hezkuntza mailaren arabera modu egokian proposatutako ariketak eta problemak ebazteko gai diren ikasleak, emandako helburuak ondo lortuz; gainera, ikasketen domeinu egokia erakusten dute; hala ere, egoera konplexuagoetan edo oso ohikoak ez diren laguntza behar dute.

³Ikasleen errendimendua zehazteko *Itemarekiko erantzunaren teoria* (IET) erabili da. Ikasle bakoitzaren errendimendua ordenatzeko eskala bat sortzen da. Eskala honek 250eko batez bestekoa eta 50eko desbiderapen tipikoa ditu. Eskala horretan, erreferentzia-puntu batzuk finkatzen dira (*konpetentzia mailak* edo *errendimendu mailak*). Eskalari zentzua emateko eta oinarrizko konpetentziekin erlazionatzeko, ebaketa-puntu edo konpetentzia maila bakoitzari puntuazio hori edo handiagoa lortu duen ikasleak eskuratuta dituen eduki, trebetasun eta eragiketa kognitibo multzo bat lotu zaio. Hau da, 325 puntuan dagoen ikasle batek puntuazio horri lotutako konpetentziak eta beharagoko maila lortutakoak ditu eskuratuta.



- Azkenik, *hasierako mailan*, oinarrizko ezagutzak dituzten edo proposatutako ariketak eta problemak ebazteko ezagutza osatu gabeak dituzten ikasleak kokatzen dira. Ikasle horiek, gainera, ariketak ez dituzte batere modu autonomoan egiten. Maila honetako ikasleak ez dira maila honekin lotutako gutxieneko puntuaziora iristen.

Konpetentzia bakoitzaren baitan errendimenduko mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabili izan duten prozedura estandarizatua erabili da, *ebaketa-puntuuen identifikazioa* izenekoa. Bertan, dagokien mailako hainbat irakaslek hartu dute parte, baita ISEI-IVEIko teknikariek, Ikuskaritzakoek eta *Berritzegune* Laguntza-zerbitzukoek ere.

c) **Emaitza orokorren eta konpetentzia mailen arabera bilakaera.**

Aurreko edizioetako emaitza dugun bost konpetentzietako emaitzen bilakaera eskaintzen da. Hiru konpetentzia finioen kasuan, egindako lau edizioen arteko alderaketa ezartzen da; *Zientzia–, teknologia– eta osasun–kulturarako* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzien* kasuan, emaitzen alderaketa ebaluatuak izan ziren dagozkien edizioekin ezartzen da. Bilakaera-datuak puntuazio orokorren arabera edo konpetentziako hiru mailetan ikasle bakoitzaren ehunekoaren arabera aurkezten dira.

I.4. KONTUAN IZAN BEHARREKO ZENBAIT IRIZPIDE

Emaitzak ondo irakurtzeko, ezinbestekoa da bi alor garrantzitsu kontuan hartzea:

a) **Konpetentzien batez bestekoak eta ezarritako errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak ezin dira beren artean alderatu.**

Konpetentzia bakoitzeko batez besteko emaitzara iristeko, estatistika-tresna berberak erabiltzen dira; era berean, hiru errendimendu mailetak ebaketa-puntuak identifikatzeko, prozedura berbera jarraitzen da konpetentzia guztietan. Hala eta guztiz ere, konpetentzia bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta bilakaera desberdina izan ohi du. Hori dela eta, ezinbestekoa da konpetentzien batez besteko emaitzak edo errendimendu maila bakoitzean kokatzen diren ikasleen ehunekoak beren artean ez alderatzea. Gauza bera gertatzen da eraikuntza-irizpide eta erreferente antzekoak dituzten *hizkuntza-komunikaziorako bi konpetentzien* –euskaraz eta gaztelaniaz– kasuan ere, abiapuntua ez baita berbera.

b) **Modu objektiboan, ez dakigu euskarri-aldaketak –paperetik ordenagailura– eraginik izan duen emaitzetan. Hori dela eta, alderaketetan zuhurrak izan behar dugu.**

Errendimenduko proben informatikako aplikazioarekin lotuta, Hezkuntza Sailak eta ISEI-IVEIk bazekiten probako euskarria aldatzeak emaitzen alderagarritasunari eragin diezaiokeela. Arrisku hori ahalik eta gehien murrizteko, kontu handiz ibili ziren ordenagailu-euskarrian eta paper-euskarrian proben arteko aldaketa ahalik eta txikiena izan zedin. Horregatik, hainbat erabaki hartu ziren:

- Lehenik, probetako itemak ordenagailutik paperera zuzenean pasatzearen alde egin zen, alde nabarmenik gabe;
- bigarrenik, proben aplikazio-ordena aurreko urtekoen berbera izan zen;
- hirugarrenik, proba bakoitzean, itemen ordena papereko bertsioaren berdina izan zen (hau da, probaren hasieran edo amaieran zihoazen itemak berberak izan ziren bi euskarrietan)
- eta azkenik, behin betiko aplikazioaren aurretiko errendimendu-proba prestatu zen 2013an ebaluatu ziren konpetentzia guztietako itemekin, eta ikastetxe guztien eskura jarri zen, ikasleek item motak eta ordenagailuan erantzuteko metodologia praktikan ezagut zitzaten.



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin, proba-prozesua arazo tekniko garrantzitsurik gabe garatu zen eta ikasleek ez zuten zailtasun handirik izan probak ordenagailuan egiteko, nahiz eta maila horretan ez duten banakako ekipamendu informatikorik.

2013ko emaitzak joan diren edizioetan lortutako emaitzekiko koherenteak izan dira. Hala eta guztiz ere, uneotan ezinezkoa da modu objektiboan zenbatzea ordenagailuaren erabilerak zenbateraino eragin duen konpetentzietako emaitzetan. Gai hori ISEI-IVEIk ikertuko du modu zehatzean.

Egoera hori gogoratzeko, konpetentzia bakoitzeko emaitza orokorren grafikoan irudi hauek erabiltzen dira:



Proba paper-
euskarran



Proba euskarri
informatikoan

Zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturaren konpetentziaren emaitzen joera desberdinak konpetentzia honi zuzendutako berezko atalean aztertu dira.



2. EMAITZAK OINARRIZKO KONPETENTZIEN ARABERA

- 2.1. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*
- 2.2. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*
- 2.3. *Matematikarako konpetentzia*
- 2.4. *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia*
- 2.5. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*

Konpetentzien batez bestekoak eta ikasleen ehunekoak errendimendu maila bakoitzean
EZ DIRA ELKARREKIN KONPARAGARRIAK.



Proba paper-
euskarrian



Proba euskarri
informatikoan



Emitzen laburpen orokorra

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 2013. urtean, puntuazio orokorrean 4 puntuko jaitsiera adierazgarria gertatu da 2011ko edizioarekin alderatuta. Hala ere, 2013ko puntuazioa 2009an egindako lehen ediziokoa baino nabarmen altuagoa da.
- 2011rekin alderatuz gero, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak % 6,8 egin du behera eta erdi-mailan ia proportzio bereberean egin du gora. Hasierako maila berriz, % 30ean mantentzen da.
- Hiru hizkuntza-ereduen puntuazioetan orain arte nabaritutako joera gorakorra eten egin da B ereduan (7 puntu galdu ditu) eta D ereduan (6 puntuko jaitsiera).

Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia honetan*, emaitza orokorrak hobera egin du nabarmen eta bost puntuko aldea lortu du 2010 eta 2011ko ebaluazioarekin alderatuta, eta 11 puntukoa 2009ko ebaluazioarekin lotuta.
- Hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak % 11,6 egin du behera. Maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak 2009koa baino % 1,7 altuagoa da.

Matematikarako kompetentzia

- *Matematikarako kompetentzian*, 2013ko emaitzak 2011koak baino nabarmen okerragoak dira. Hala ere, 2009ko ediziokoak baino 3 puntu altuagoak dira.
- 2013. urtean, ikasleen % 12,1 hasierako mailan kokatu da eta % 35,2 maila aurreratuan kokatu da. 2011ko edizioan, % 11,5 hasierako mailan kokatu zen eta % 39,9 maila aurreratuan.
- Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan, itunpeko sareko geruzek sare publikoek baino emaitza hobeak lortu dituzte.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia

- Konpetentzia honetan, emaitza orokorrak nabarmen egin du okerrera eta 14 puntuko jaitziera izan du.
- Hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak % 50 inguru egin du gora, eta % 35 inguru egin du behera maila aurreratua lortu dutenen kopuruak.
- Itunpeko hiru geruzek itunpeko hiru geruza publikoek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Geruza guztietan, gora egin du (gutxiago edo gehiago) hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak.
- Probak euskaraz erantzun duten ikasleek zein gaztelaniaz egin dutenek puntuazio nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

- Konpetentzia honetan, emaitza orokorra ez da aldatu 2010etik 2013ra.
- Maila aurreratuan eta hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak gora egin du zertxobait.
- Itunpeko hiru geruzek itunpeko hiru geruza publikoek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Maila aurreratuan igoera nabarmena gertatzen diren geruzak A geruza publikoa eta itunpeko A geruza dira. Geruza guztietan, gora egin du (gutxiago edo gehiago) hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak.
- Probako hizkuntzari dagokionez, 2013an lortu zen gaztelaniaz erantzun zutenen arteko emaitzarik onena, 2010ean ikusi zen moduan.
- Probak gaztelaniaz erantzun zuten ikasleek emaitzak nabarmen hobetu dituzte; aldiz, euskaraz erantzun zutenen puntuazioak ez du alde adierazgarririk 2010ekoarekin alderatuta.

2.1. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA.


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, 2013. urtean, puntuazio orokorrean 4 puntuko jaitsiera adierazgarria gertatu da 2011ko edizioaren alderatuta. Hala ere, 2013ko puntuazioa 2009an egindako lehen ediziokoa baino nabarmen altuagoa da.

2011rekin alderatuz gero, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak % 6,8 egin du behera eta erdi-mailan ia proportzio berberean egin du gora. Hasierako maila berriz, % 30ean mantentzen da.

Hiru hizkuntza-ereduen puntuazioetan orain arte nabaritutako joera gorakorra eten egin da B ereduan (7 puntu galdu ditu) eta D ereduan (6 puntuko jaitsiera).

2.1.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA⁴

2.1.1.a grafikoa. LH4. Batez besteko emaitzen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



Aurreko edizioetako etengabeko igoeraren ostean, 2009ko lehen edizioko 250 puntuetatik hasi, eta 2011ko aurreko edizioko 256ra, 2013ko ebaluazioan 4 puntuko jaitsiera gertatu da. Puntuazioan izan den jaitsiera hori adierazgarria da 2011ko eta 2010eko emaitzekin alderatzen baldin bada, baina 2013an lortutako puntuazioa 2009an lortutakoa baino nabarmen altuagoa da.


⁴Aurreko edizioetan bezala, emaitza orokorretan, konpetentzia honetako bi dimentsio soilik hartu dira kontuan: *Entzumena* eta *Irakurmena*. Idazmeneko emaitzak modu zehatzean ageri dira 2.1.7. atalean.

2.1.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, 2.1.2.a grafikoan ikus daitekeen moduan, 2013an, ikasleen % 30,6k hasierako konpetentzia-maila erakusten du, eta ikasleen % 26 maila aurreratuan dago.

2013ko mailen ehunekoak aurreko edizioetakoekin alderatzen baldin badira, ikusiko dugu, azken edizio honetan, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa edizio guztietako baxuena dela, 2011ko aurreko edizioan baino % 6,8 ikasle gutxiagorekin. 2013ko ebaluazioan, erdi-mailan dago ikasleen ehunekorik altuena, 2011n baino % 6 gehiago, eta hasierako mailan ehunekoa mantentzen da. 2009ri dagokionez, azken edizio honetan, ikasleen % 2,3 gutxiago dago hasierako mailan, eta ikasleen % 4,5eko jaitsiera izan da maila aurreratuan.

2.1.2.a grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailen arabera.




2.1.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA-EREDUA ETA HEZKUNTZA-SAREA

A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA.

2.1.3.a grafikoan, Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan, ebaluazio honetan aintzat hartutako sei geruzetako bakoitzak lortutako emaitzak aurkezten dira.

2.1.3.a grafikoa. LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera.



Grafikoaren irakurketatik ondorio batzuk atera daitezke:

- Geruza guztiek, 2013ko edizioan, emaitzak murrizten dituzte 2011ko aplikazioarekin alderatzen baldin badira. Hala ere, denek ez dute ehuneko berberarekin murrizten. Sare publikoko eta itunpeko A ereduak geruzetan emaitzak 2 edo 3 puntu jaitsi dituzte, baina itunpeko B eta D ereduak jaitsiera hori hirukoiztu egin dute.
- D geruza publikoa, laginaren % 43,5 ordezkatzen duena, da emaitzetan egonkortasun handiena erakusten duen geruza; izan ere, puntuazioak, lau edizioetan, gehienez 4 puntuko aldearekin mugitzen dira. Hala ere, nabarmendu behar da geruza honetako emaitza, 2013an, lau edizioetako baxuena dela.
- 2013 eta 2009 emaitzen aldeetan dagoen adierazgarritasuna aztertzen baldin badugu, B geruza publikoak eta itunpekoak ez dituzte emaitzak aldatzen; bi sareetako A ereduak puntuazioak nabarmen hobetu ditu eta D geruza publikoak eta itunpekoak emaitzak nabarmen okertu dituzte.
- 2013ko emaitzen eta 2011ko aurreko edizioaren arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, bi sareetako A ereduak soilik ez ditu emaitzak aldatzen, gainerako geruzek nabarmen egin dute okerrera 2013an.

B) IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2.1.3.b eta 2.1.3.g grafikoetan, ikasleen ehunekoaren bilakaera adierazten da errendimenduko maila bakoitzean Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan. Irakurketa errazteko eta bilakaera hori errazago alderatu ahal izateko, grafiko bat aurkeztu da sei geruzetako bakoitzerako.

Azterketatik, hainbat alor ondorioztatzen dira:


- A geruza publikoan, ikasleen % 97k hasierako mailan jarraitzen du; aldiz, itunpeko A geruzak % 11 murriztu du maila honetako ehunekoa. 2009ko % 78,9tik 2013ko % 68,4ra pasatuz. Hobekuntza horrek erdi-maila hobetu du, baina ez maila aurreratua.
- B ereduari dagokionez, geruza publikoak ikasleen % 47-48 hasierako mailan kokatzen du edizio guztietan zehar (2010. urtean izan ezik, ehuneko hori nabarmen jaitsi baitzen). Itunpeko B geruzak ikasleen herena baino gehiago biltzen du maila honetan. Erdi-mailan, bien artean, ez dago




hainbesteko alderik, baina bai maila aurreratuan. Izan ere, itunpeko B geruzak B geruza publikoak baino ikasleen % 50 gehiago du.

- Azkenik, D ereduari, ikus dezakegu bi sareetako erdi-mailako ikasleen ehuneko oso hurbil dagoela. Aldiz, muturreko mailatan, ikasleen % 5 inguruko aldea dago. D geruza publikoan, % 5 hori hasierako mailan dago, eta itunpeko D geruzan, maila aurreratuan kokatzen da. 2013an, lehenengo aldiz, D geruza publikoko maila aurreratua % 30ekoa baino baxuagoa da eta itunpeko D geruza % 40z behetik kokatzen da; 2011 iri dagokionez, % 5,6 eta % 10,9 galdu dituzte hurrenez hurren. Itunpeko D geruzak ikasleen % 20 hasierako mailan du, baita lehen aldiz ere.


1.2.3.b grafikoa. LH4. A publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.




2.1.3.c grafikoa. LH4. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.



2.1.3.d grafikoa. LH4. B publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.




2.1.3.e grafikoa. LH4. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.






2.1.3.f grafikoa. LH4. D publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-kompetentzian.




2.1.3.g grafikoa. LH4. ED09-ED10-ED11-ED13. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan



C) 2013KO EMAITZAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

2.1.3.h grafikoa, 2013ko edizioan, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian sei geruzek lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.

2.1.3.h grafikoa. ED13-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.




Sei geruzen arteko puntuazioetako aldean adierazgarritasunaren ikuspegitik, nabari da geruza guztiek alde adierazgarriak dituztela besteekin alderatuta. Hau da, adierazgarritasunaren azterketaren ostean, ez dago puntuazioak berdinduko dituen geruzarik. Euskararen presentziarik handiena duten eredu etako puntuazioak gainerako eredu etakoak baino nabarmen hobeak dira, eta hizkuntza-eredu bakoitzaren baitan, itunpeko geruzaren puntuazioa geruza publikokoa baino nabarmen altuagoa da.

2.1.3.i grafikoan, geruza bakoitzak –geruza bakoitzeko lehen zutabea– lortutako puntuazioa eta Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz –geruza bakoitzeko bigarren zutabea– horietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiak ISEKeko⁵ maila berbera izango balute.

Geruza publiko guztiak puntuazioa hobetuko lukete ISEK berdinduko balitz, kopuru desberdinean bada ere (A geruza publikoko 12 puntutatik hasi, eta D geruza publikoko 1 puntura arte). Alderantziz, itunpeko geruza guztiak puntuazioa jaitsiko lukete Itunpeko A geruzako 8 puntutatik hasi, eta sare honetako B ereduako 2 puntura arte.

ISEK kontrolatu ostean geruzetako puntuazioen arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, lehen aintzat hartutako alde guztiak mantentzen dira: D ereduaren gaitetik gaitetik kokatzen da, eta hori A ereduaren gaitetik, eta hizkuntza-eredu bakoitzaren baitan, geruza publikoa itunpeko geruzaren azpitik dago nabarmen.

2.1.3.i grafikoa. ED13-LH4. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



2.1.4. EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ikasleen galdera-sortan, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntzari buruzko informazioa bildu zen. Ikaslea familia euskalduneko hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Ikasle horiek laginaren % 23,6 ordezkatzen dute. Gainerako ikasleak, hau da, % 76,4, “Euskara ez dena” kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza besteren bat duten ikasleak ere.

2.1.4.a grafikoak adierazten du 2013an, puntuazio orokorretan lehen adierazitako jaitziera nabarmenago gertatzen dela etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen kasuan, eta emaitzak % 10 okertu dira 2011rekien


⁵ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderari erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

alderatuta. Lau edizioen arteko emaitzarik baxuenak dira. Bien arteko aldea adierazgarria da, baita 2009ko puntuazioarekin ere.

Aldiz, etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek aurreko edizioetako emaitzen joera mantentzen dute. Hala ere, 2011koarekin alderatuta, hiru puntu egin du behera, eta alde hori adierazgarria da. Aldiz, 2009koarekin alderatuta ez da adierazgarria.

Hala eta guztiz ere, grafikoko daturik garrantzitsuenak da bi hizkuntza taldeen arteko alde handia mantendu egiten dela. Ohikoa da hizkuntza-murgilketa prozesuetan; hala ere, egia da 2011n zegoen 34 puntuko aldea 27 puntura jaitsi dela, batez ere etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen puntuazioak okerrera egin duelako.

2.1.4.a grafikoa. LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera familia- hizkuntzaren arabera.



* Grafikorearen eskala 220an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

B) D EREDUKO IKASLEEN BANAKETAN IZAN DEN BILAKAERA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

2.1.4.a grafikoa ikusi den moduan, ikasleen familia-hizkuntzak eragin argia du konpetentzia honetako emaitzetan, 26 eta 36 puntuko aldea, Lehen Hezkuntzako 4. mailako lagin osoa aintzat hartzen bada.


2.1.4.b grafikoa, D ereduko ikasleen arteko aldeak ageri dira errendimendu mailen arabera, ehunekoetan adierazita, haien familia-hizkuntza euskara izan edo ez:

- Hasteko, esan genezake, oro har, etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek nabarmenago egin dutela okerrera familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleek baino: maila aurreratuan % 10 murriztu da ehunekoa, eta etxean euskaraz hitz egiten ez dutenek % 7,5. Hasierako mailan, euskaraz hitz egiten dutenek ehunekoa hirukoiztu (% 3,3) egin dute, etxean euskaraz hitz egiten ez dutenekin alderatuta (% 1,1). Hala ere, euskaraz hitz egiten ez duen taldeak etxean euskaraz hitz egiten dutenen pisu bikoitza du.
- Bigarren lekuan, etxean euskaraz hitz egiten dutenen artean, maila aurreratuaren eta erdi-mailaren arteko aldea, 2009an, % 22koa izan zen. 2013an 5,6 puntura murriztu da. Aitzitik, etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleen artean, alde hori % 9tik % 22,8ra igo da.



- Hirugarrenik, nabarmendu beharrekoa da D ereduko etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen artean, % 15,4k ez duela lortu konpetentzia honetako hasierako maila gainditzea.
- Azkenik, familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen artean, % 28,1ek euskarako hasierako maila du, 2009an baino % 1,6 gutxiagok.

2.1.4.b grafikoa. ED13-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian D ereduko ikasleen konpetentzia mailen arabera banaketan izandako bilakaera familia hizkuntzaren arabera. ED09-ED13



2.1.5. EMAITZAK DIMENTSIONEN ARABERA: ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA


Dagoeneko adierazi den moduan, konpetentzia hau osatzen duten bost dimentsioetatik, Ebaluazio diagnostikoko puntuazioan, bi hauek hartu dira kontuan: *Entzumena* eta *Irakurmena*. *Idazmena*, laginetik abiatuta aztertu zena, geroago aztertu zen. *Mintzamena* eta *Ahozko elkarrekintza* dimentsioak ez dira ebaluatu behar duten kudeaketa-, antolaketa- eta denbora-zailtasunak direla eta.

2.1.5.a grafikoak adierazitako bi dimentsioen emaitzak erakusten ditu eta jokaera desberdina ikusten da. 2011ko datuekin alderatzen baldin bada, *Entzumenean* emaitzek nabarmen egin dute gora eta *Irakurmeneko* emaitzek 9 puntu egin dute okerrera, 2009ko⁶ lehen edizioeko puntuazioen azpitik kokatuz.

⁶ Litekeena da proban egindako euskarri aldatetak *Idazmeneko* emaitzei modu negatiboan eragitea; hau da, paperetik ordenagailura aldatzeak. Hala ere, ez dugu hipotesi hori bermatzen duen daturik. ISEI-IVEIk horri buruzko ikerketa zehatza egingo du probetako aplikazioan euskarria aldatzeak emaitzetan eragingo duen argitzeko helburuarekin. Gainera, eragin horren dimentsioa ere aztertuko du.

2009 eta 2013 artean, bi dimentsioetako emaitzen aldea ere adierazgarria da, eta lehen ikusi den jokaera berbera du: hobekuntza *Entzumenean* eta okerrera nabarmen *Ulermenean*.

2.1.5.a grafikoa. LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera.




* Grafikoaren eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

B) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Errendimendu mailetan ikasleen banaketari dagokionez, bilakaera desberdina da dimentsio batean eta bestean, emaitza orokorretan ikusitakoaren antzera: *Irakurmenean* datuek okerrera egin dute eta *Entzumenean* nolabaiteko hobekuntza izan da. Agian, konpetentzia honetan, puntuazioaren jaitsieraren gakoetako bat irakurmeneko puntuazio baxua da; izan ere, ikusiko dugun moduan, % 7 baino gehiago egin du gora konpetentziako hasierako maila gainditzen ez duten ikasleen ehunekoak.


Entzumenean, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoa murriztu egin da (2011n baino % 4,7 gutxiago eta ia 2009koaren ehuneko berbera). Hala eta guztiz ere, hasierako maila lortu duen ikasleen ehunekoan hobekuntza nabarmena gertatu da; izan ere, ehunekoak, 2011koarekin alderatuta, % 9 inguru egin du behera, % 13 inguru 2009koarekin alderatuta.

2.1.5.b grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako Entzumenean.



Irakurmenean, ikasleen banaketak oso argi egin du okerrera; izan ere, 2011ko edizioari dagokionez, % 7,6 ikasle gehiago dago hasierako mailan eta % 7 gutxiago maila aurreratuan. 2009ko ehunekoekin alderatzen baldin badugu, antzeko zerbaite gertatu da, ehunekoen arteko aldeak hain handiak ez izan arren.

2.1.5.c grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako Idazmenean.



2.1.6. EMAITZAK IDAZMENEAN


Euskaraz, *Idazmena* dimentsioa 3.053 ikaslek osatutako lagin baten bidez ebaluatu zen. 2013ko edizioan parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu zuten⁷. Ikasleek komunikazio-egoera zehatz batean kokatutako testu bat idatzi behar zuten. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen kasuan, azalpen-testu bat idazteko eskatu zitzaaien, bidegorri batean gertutako istripu bati buruzko albistearekin zerikusia duena. Eskatzen zitzaaien gutxieneko luzera 100 hitzekoa zen.

Dimentsio honetako emaitzak ezin dira aurreko edizioekin alderatu; izan ere, proba bakoitzean, *Idazmeneko* proba guztiz aldatzen da eta publikoki ematen da ezagutzera.

A) EMAITZAK ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2.1.6.a. *grafikoan*, errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa adierazten da: oro har, ikasleen herena inguru hiru mailetako bakoitzean kokatzen da. Hala ere, hasierako mailaren kasuan, ehuneko hori % 39ra iristen da eta maila aurreratuko ehunekoa herenaren azpitik kokatzen da.

2.1.6.a grafikoa. ED13-LH4. Euskarazko Hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak.




B) EMAITZAK GERUZEN ARABERA

Hurrengo grafikoak sei geruzetako bakoitzean eskolatutako ikasleek *Idazmenean* lortutako ED13ko puntuazioak adierazten dizkigu.

⁷ Autonomia erkidego mailan emaitzak lortzeko kontrolatutako laginaz gain, ED13an, *Idazmeneko* ebaluazioa egitea planteatu da. Ikastetxeetako irakasleek ebaluazioa hori borondatez egitea erabaki zen eta Ebaluazio diagnostikoaren baitan egongo zela. Eraginkor bihurtzeko, ikastetxeei testu-ereduak, jarraibideak eta ebaluazio-irizpideak eman zitzaizkien. Material horiek *Idazmeneko* kanpo-aplikazioan erabilitako berberak dira. Parte hartu zuten ikastetxe guztietako ikasle askori aplikatu zitzaaien, Euskadiko hezkuntza sistemaren egoera ezagutzera emateko helburuarekin.

2.1.6.b grafikoa. ED13-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera.




Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren dimentsio honetako puntuaziorik altuenak D ereduetan eskolatutako ikasleek lortutakoak dira, bai itunpeko sarekoek, bai sare publikoek, eta aldiz, puntuaziorik baxuenak A ereduiko ikasleek lortu dituzte, bai sare publikoek, bai itunpeko sarekoek. A geruza publikoko puntuazioa itunpeko A geruzako ikasleena baino 34 puntu baxuagoa da. Gauza bera gertatzen da itunpeko D geruzako ikasleekin ere. Horien batez bestekoa itunpeko D publikokoa ikasleena baino 6 puntu altuagoa da. Geruzen batez besteko puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.

C) SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK⁸

Hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan, neskek mutilek baino 12 puntu gehiago lortu dituzte euskarazko Idazmenean.

2.1.6.c grafikoa. ED13-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak sexuaren arabera.



⁸ Aldagai honen azterketa *Idazmena* dimentsioan soilik egin da, dimentsio honen ebaluazioan erabili den laginaren ezaugarri zehatzak direla eta. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia honi dagozkien ikasleen sexuaren arabera azterketa, oro har, 3.1. atalean egin da.

2.2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA


Emaizta orokorrak hobera egin du nabarmen eta bost puntuko aldea lortu du 2010 eta 2011ko ebaluazioekin alderatuta, eta 11 puntukoa 2009ko ebaluazioarekin lotuta.

Hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak % 11,6 egin du behera. Maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoa 2009koa baino % 1,7 altuagoa da.

2.2.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA⁹

Konpetentzia honetan, puntuazioaren bilakaeran, oro har, hobekuntza argia gertatu da. 2009ko lehen ebaluazioko emaitzak gaur egungoekin alderatzen baldin baditugu, 11 puntuko igoera izan dela ikusiko dugu. 2010 eta 2011 urteetan, 256 puntuko puntuazio berbera mantendu da, baina 2011 eta 2013 artean bost puntu egin du gora. Kasu guztietan, aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

2.2.1.a grafikoa. LH4. Emaitzen bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.*




2.2.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2.2.2.a grafikoa, Ebaluazio diagnostikoa gauzatu den lau urteetan zehar, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* ikasleen banaketa ageri da. 2013ko ebaluazioan hasierako mailan kokatzen den ikasleen ehunekoa % 6,3koa da, hau da, 2009ko lehen ebaluazioan baino 11,6 puntu gutxiago. Maila aurreratuan kokatzen diren ikasleei dagokienez, ehunekoa % 28,8ra iristen da, hau da, 2009an baino % 1,7 gehiago. Bilakaera orokorrak erakusten du 2010eko urtean izan ezik, hasierako mailako ikasleen jaitsiera eta aurreratuko igoera jarraitua izan dela konpetentzia honetan.

⁹ Aurreko edizioetan bezala, emaitza orokorretan, konpetentzia honetako bi dimentsio soilik hartu dira kontuan: *Entzumena* eta *Irakurmena*. *Idazmeneko* emaitzak modu zehatzean ageri dira 2.2.7. atalean.

2.2.2.a grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailen arabera.



2.2.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA-EREDUA ETA HEZKUNTZA-SAREA

A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA


2.2.3.a grafikoa, geruza hauetako bakoitzak egin diren lau ebaluazioetan lortutako puntuazioak ageri dira. Joera orokorra da geruza guztiek konpetentzia honetako puntuazioak hobetu dituztela; hala ere, bada salbuespenik.

2009. urtea 2013. urtearekin alderatzen baldin badugu, hobekuntza, kasu guztietan, puntuazio hauen artekoa izan ohi da: A geruza publikoko 22 puntu eta itunpeko A geruzako 3 puntu artekoa. Hala ere, kasu honetan, aldea ez da adierazgarria. B geruza publikoak, D publikoak eta itunpeko D geruzak 12 puntu irabazi dituzte, eta itunpeko B geruzak 8.

Hobekuntzarako joera 2010. urtean hautsi da A geruza publikoan, eta 2011n itunpeko A eta B geruzetan.




2.2.3.a grafikoa. LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera.




B) IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, ikasleen banaketaren bilakaera ikus daiteke errendimendu mailen eta geruzen arabera konpetentzia horretako Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan.

2.2.3.b grafikoa: LH4. A publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan




2.2.3.e grafikoa: LH4. Itunpeko A ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan.







2.2.3.c grafikoa: LH4. B publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*




2.2.3.f grafikoa: LH4. Itunpeko B ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*



2.2.3.d grafikoa: LH4. D publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*



2.2.3.g grafikoa: LH4. Itunpeko D ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*



A geruza publikoa eta itunpeko A geruza aztertzen baldin baditugu, bi geruzetan, urtez urte, hasierako mailan kokatzen den ikasleen ehunekoaren jaitsiera jarraitua eta nabarmena, eta era berean, maila aurreratuko ikasleen igoera (moderatuagoa) izan dela ikusten da. Joera hori errepikatu egiten da gainerako geruzetan eta konpetentzia honetako ikasleen errendimenduan hobekuntza izan dela berresten du horrek.


Geruza guztietan, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoa % 10 baino baxuagoa da, A geruza publikoan izan ezik, 2013an ia % 20ra iritsi baitzen. Hala ere, egia da geruza honetan ehunekoa erdira murriztu dela 2009 eta 2013 artean, ia % 40tik % 18,9ra pasatuz.

C) 2013KO EMAITZAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

2.2.3.h grafikoa, geruza bakoitzak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioa ageri da¹⁰. Aldeak adierazgarritasun estatistikoaren ikuspegitik aztertzen baldin baditugu, ikusiko dugu sare publikoa eta itunpekoa alderatzen baldin baditugu, aldeak adierazgarriak direla. Eredu bakoitza bere hezkuntza-sarearen baitan aztertzen baldin badugu, A eta B ereduaren artean aldeak daudela ikusiko dugu, baina ez B eta D ereduaren artean. Itunpeko sareari dagokionez, aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.


¹⁰ Emaitzetan, konpetentzia honetan neurtu diren trebetasunetako bi bakarrik hartu dira kontuan: *Entzumena* eta *Irakurmena*.

2.2.3.h grafikoa. ED13-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera.



2.2.3.i. grafikoa, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa –kolore iluneko zutabea– eta indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen –kolore argiko zutabea– batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, geruza berbereko ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa¹¹. Grafikoa ikus daitekeen moduan, ISEK-en eragina kentzean, geruza publikoek puntuazioak hobetzen dituzte. Itunpeko geruzek kontrakoa egiten dute, puntuazioa jaitsi, hain zuzen.

2.2.3.i grafikoa. ED13-LH4. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia geruzen arabera.



Hasierako puntuazioen eta geruzetan ISEK-en arabera legozkiekeen puntuazioen arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, hau ikusten da:

- A geruza publikoak gainerakoak baino puntuazio nabarmen baxuagoa du.

¹¹ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderari erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



- B eta D geruza publikoek beren puntuazioa mantendu zuten, hau da, beren artean ez da alde nabarmenik.
- B eta D geruza publikoek itunpeko D geruzaren emaitza berberak lortu dituzte eta itunpeko A geruzak baino puntuazio baxuagoa izaten jarraitzen du.
- Itunpeko A eta B geruzek gainerakoek baino puntuazio altuagoa lortu dute.


2.2.4. EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

Konpetentzia honetako emaitzak familia-hizkuntzaren arabera aztertzen baldin badira, ikusten da familia-hizkuntza euskara ez den hizkuntzaren bat duten ikasleek familia-hizkuntza euskara dutenek baino puntuazio altuagoak lortu dituztela. 2009. urtea da salbuespena. Etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek lortu dituzte emaitzarik onenak. Edonola ere, puntuazioen igoera, urtez urte, bi ikasle motetan gertatzen da, 2010. urtean izan ezik euskal hiztunak diren ikasleentzat eta 2011n beste familia-hizkuntza bat dutenentzat.

Bi hiztun taldeen arteko aldeari dagokionez, ikus daiteke puntuazioen aldea murriztu egin dela. 2009ko 10 puntutik 2013ko 4ra pasatuz; alde hori estatistikoki adierazgarria da.

Bestalde, erritmo desberdina antzematen da bi taldeen aurrerapenean: euskal hiztunek 5 puntuko hobekuntza izan dute 2009tik 2013ra, eta familia-hizkuntzen artean euskara ez duen taldeak, 2013an, 19 puntu gehitu dizkio puntuazioari 2009an.

2.2.4.a. grafikoa. LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.



* Grafikoaren eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

2.2.5. EMAITZAK DIMENTSIONEN ARABERA: ENTZUMENA ETA IRAKURMENA


Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian bi dimentsio ebaluatu dira: ahozko testuen eta idatzizko testuen ulermena. Edizio honetan, ikastetxearen esku geratuko dira idazmeneko probak egitea ISEI-IVEIk egindako zuzenketa-irizpide eta eredu batzuetatik abiatuta.

2.2.5.a grafikoa, ikus daiteke ikasleen ebaluazioa egin den bi dimentsioen jokoera zertxobait desberdina dela. *Entzumena*, urtetik urtera, emaitzak hobetzen ari da, 2011. urtean izan ezik. Urte horretan bi puntu galdu ziren aurreko urtearekin alderatuta. 2009tik 2013ra bitartean, dimentsio honetan izan den hobekuntza oso garrantzitsua da, 14 puntukoa.



Edizio guztietan, *Irakurmenak* ere hobera egin du. Hala ere, aurreko dimentsioan baino igoera txikiagoa izan du, 9 puntukoa; izan ere, 2009an 250 izatetik 2013an 259 izatera pasatu da. Bi dimentsioetan aldea adierazgarria da.


2.2.5.a. grafikoa. LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera.



* Grafikoa eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.


Ikasleak errendimendu mailetan banatzeari dagokionez, bilakaera guztiz aldekoa da bi dimentsioetan. Hala ere, puntuazio orokorren kasuan, esaterako, hobekuntza argiagoa da *Entzumenean*. Dimentsio honetan, 2009an hasierako mailan ikasleen % 20,1 egotetik 2013an % 7,4 egotera pasatu da; hau da, ikasleen herena baino zertxobait gehiago. Aldi honetan bertan, maila aurreratuan kokatzen den ikasleen kopurua % 29tik % 34,8ra pasatu da.

2.2.5.b grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Entzumenean.



Irakurmenean, ikasleen banaketak ere hobera egin du lau edizioetan zehar, baina ez hain nabarmen. 2009an, ikasleen % 19,8tik zegoen hasierako mailan kokatuta, eta 2013an % 10,2. Urte horietan, maila aurreratuan, ikasleen igoera % 0,6koa da.

**2.2.5.c grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Irakurmenean.**



2.2.6. EMAITZAK IDAZMENEAN


Lehen adierazi dugun moduan, gaztelaniazko *Idazmena* dimentsioa 2013ko edizioan Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek parte hartu zuten 3.253 ikaslek osatutako lagin baten bidez ebaluatu zen¹². Ikasleek komunikazio-egoera zehatz batean kokatutako testu bat idatzi behar zuten. Kasu honetan, euri- eta haize-denborale baten inguruko albistea. Eskatzen zitzaien gutxieneko luzera 100 hitzekoa zen.

Dimentsio honetako emaitzak ezin dira aurreko edizioekin alderatu; izan ere, proba bakoitzean, *Idazmeneko* proba guztiz aldatzen da eta publikoki ematen da ezagutzera.

2.2.6.a grafikoa, ikasleen banaketaren bilakaera ageri da errendimendu mailen arabera. *Idazmeneko* banaketa hori *Entzumena* eta *Irakurmenekoaren* oso antzekoa da; hau da, ikasleen erdia baino gehiago erdi-mailan kokatzen da (% 58), % 28 maila aurreratuan eta % 14 hasierako mailan.

¹² Autonomia erkidego mailan emaitzak lortzeko kontrolatutako laginaz gain, ED13an, *Idazmeneko* ebaluazioa egitea planteatu da Ebaluazio diagnostikoaren baitan. Dimentsioa ikastetxeko irakasleek beren borondatez ebaluatuko zutela erabaki zen. Eraginkor bihurtzeko, ikastetxeei testu-ereduak, jarraibideak eta ebaluazio-irizpideak eman zitzaizkien. Material horiek *Idazmeneko* kanpo-aplikazioan erabilitako berberak dira. Parte hartu zuten ikastetxe guztietako ikasle askori aplikatu zitzairen, Euskadiko hezkuntza sistemaren egoera ezagutzera emateko helburuarekin.


2.2.6.a grafikoa. ED13-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak errendimendu mailen arabera.



Geruzen araberako banaketan ikus dezakegu itunpeko sareko geruzek, kasu guztietan, sare publikoek baino emaitza hobekak lortu dituztela, eta itunpeko A eta B geruzak dira puntuaziorik altuenak lortu dituztenak, 263 eta 262 punturekin hurrenez hurren, eta itunpeko D eredia 249 punturekin. Aurrekoa urteekin alderatuta, aldea estatistikoki adierazgarria da.


Sare publikoan, puntuaziorik altuena lortu duen eredia D geruza publikoa da 246 punturekin; B eredia dator jarraian 244 punturekin eta, azkenik, A eredia 215 punturekin. Kasu honetan, alde adierazgarria A geruza publikoaren eta aurreko bien artean gertatzen da. *Idazmenean*, geruzen araberako banaketa *Entzumena* eta *Irakurmenean* egindakoaren oso antzekoa da, lehen ikusi den bezala.

2.2.6.b grafikoa. ED13-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera.





Sexuen¹³ araberako emaitzei dagokienez, 2.2.6.c grafikoa ikus daiteke neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela. Bi sexuen arteko aldea adierazgarria da.



¹³ Aldagai honen azterketa *Idazmena* dimentsioan soilik egin da, dimentsio honen ebaluazioan erabili den laginaren ezaugarri zehatzak direla eta. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* honi dagokien ikasleen sexuaren araberako azterketa, oro har, 3.1. atalean egin da.

2.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Matematikarako konpetentzian, 2013ko emaitzak 2011koak baino nabarmen okerragoak dira. Hala ere, 2009ko edizioak baino 3 puntu altuagoak dira.


2013. urtean, ikasleen % 12,1 hasierako mailan kokatu da eta % 35,2 maila aurreratuan kokatu da. 2011ko edizioan, aldiz, % 11,5 hasierako mailan kokatu zen eta % 39,9 maila aurreratuan.

Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan, itunpeko sareko geruzek sare publikoek baino emaitza hobekak lortu dituzte.

2.3.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

2013ko edizioan, emaitzek okerrera egin dute 2011ko aurreko edizioarekin alderatuta; izan ere, puntuazioak bi puntu egin du behera. Alde hori adierazgarria da. Hala eta guztiz ere, konpetentzia honetan, emaitzek ED09koaren eta ED10ekoaren gainetik jarraitzen dute. Bi kasuetan aldeak adierazgarriak dira.


2.3.1.a grafikoa. LH4. Emaitza orokorren bilakaera Matematikarako konpetentzian.



2.3.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Datu orokorrekin gertatzen den moduan, errendimendu mailen arabera ehunekoetan ere emaitzek okerrera egin dute, 2011ko edizioarekin alderatzen baldin bada; izan ere, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du zertxobait (% 0,7) eta nabarmenago egin du behera maila aurreratuko ikasleen ehunekoak, % 4,1. 2013ko edizioan emaitzak, hasierako mailan, lehen bi edizioetan lortutakoen gainetik mantentzen dira, eta maila aurreratuan, 2009ko ehunekoa berdintzen du.

**2.3.2.a grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera
Matematikarako kompetentzian.**



2.3.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA:HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA


A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

2.3.3.a grafikoa, geruza hauetako bakoitzak egin diren lau ebaluazioetan lortutako puntuazioak ageri dira.

Geruza gehienetan, 2009tik 2013rako puntuazioak gora egitea da joera orokorra. Hala ere, bi puntuazioen arteko aldea D geruza publikoan eta itunpekoan soilik da adierazgarria. Gainerako geruzek ez dituzte alde adierazgarriak erakusten, A geruza publikoak izan ezik, aldi honetan emaitzek nabarmen okerrera egin duten geruza bakarra baita.

2013 eta 2011ko emaitzen artean alderaketa egiten baldin badugu, egoera aldatu egingo da; izan ere, D geruza publikoko eta itunpeko, eta itunpeko B geruzako emaitzek nabarmen egin dute okerrera. Gainerako geruzetan, aldea ez da adierazgarria.

2.3.3.a grafikoa. LH4. Emaitzen bilakaera geruzen arabera Matematikarako konpetentzian.



B) IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Jarraian ageri diren sei grafikoetan, ikasleen banaketaren bilakaera ikus daiteke geruzen eta errendimendu mailen arabera konpetentzia honetako Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan.

Ikuspegi orokorretik, nabarmendu beharrekoa da hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak % 10 inguruan kokatzen dela itunpeko hiru eruedetan eta D geruza publikoan. B geruza publikoan berriz, ia bikoiztu egiten da, eta A geruza publikoan ia laukoiztu.

Ebaluazio diagnostikoko edizioak aztertzen baldin baditugu, A geruza publikoan, ikasleen herena inguru dago hasierako mailan, eta % 15 inguru maila aurreratuan. Mailen arabera ikasleen banaketari dagokionez, emaitzarik onenak dituen edizioa 2009koa da. 2013koak emaitza nabarmen okerragoak erakusten ditu; izan ere, ikasleen % 36,8 dago hasierako mailan eta % 12,1 maila aurreratuan. Itunpeko A geruzak emaitza askoz ere hobekak lortu ditu; izan ere, ikasleen % 10 baino gutxiago dago hasierako mailan, 2010. urtean izan ezik. Era berean, A geruzan, ikasleen % 45 dago maila aurreratuan.


B geruza publikoan, ikasleen % 20 inguru dago hasierako mailan eta % 30 inguru maila aurreratuan. 2011koa da emaitzarik onenak utzi dizkigun edizioa, ikasleen % 18,4 baitzegoen hasierako mailan eta % 30,1 maila aurreratuan. Itunpeko B geruzan ikasleen % 10 inguru dago hasierako mailan eta % 40 inguru maila aurreratuan. 2011. urtean ikasleen % 43,5 zegoen maila horretan, emaitzarik onenak lortu dituen edizioa izanda.

D geruza publikoan, ikasleen % 15 inguru dago hasierako mailan eta ikasleen herena inguru maila aurreratuan. 2011koa da emaitzarik onenak utzi dizkigun edizioa, ikasleen % 13 baitzegoen hasierako mailan eta % 35,9 maila aurreratuan. Itunpeko D geruzak ere 2011. urtean erdietsi ditu emaitzarik onenak; ikasleen




% 8 zegoen hasierako mailan eta % 44,7 maila aurreratuan. Oro har, geruza honetako ikasleen %10 inguru hasierako mailan dago kokatuta, eta % 40 inguru maila aurreratuan.


2.3.3.b grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian A publikoan.




2.3.3.c grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian Itunpeko A.




2.3.3.d grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian B publikoan.




2.3.3.e grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian Itunpeko B.



2.3.3.f grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian D publikoan.



2.3.3.g grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako kompetentzian Itunpeko D.




C) 2013KO EMAITZAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

2.3.3.h grafikoa, Matematikarako kompetentzian geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa ageri da. Adierazgarritasun estatistikoaren ikuspegitik aldeak aztertzen baldin baditugu, ikusiko dugu sare publikoa eta itunpeko sarea alderatzen baldin badira, alde horiek adierazgarriak direla kasu guztietan.


Hizkuntza-eredu bakoitza bere hezkuntza-sarean aztertzen baldin badugu, ikusiko dugu aldea dagoela sare publikoko hiru ereduaren artean, baina itunpeko sarean A ereduaren eta beste bien arteko aldeak soilik nabari dira; biek puntuazio berbera lortu baitute, 258 puntu.

2.3.3.h grafikoa. ED13-LH4. Matematikarako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.



2.3.3.i. grafikoa, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa –kolore iluneko zutabea– eta indize sozio-ekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen –kolore argiko zutabea– batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, geruza berbereko ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa¹⁴. Grafikoa ikus daitekeen moduan, ISEK-en eragina kentzerakoan, geruza publikoek puntuazioak hobetzen dituzte. Itunpeko geruzek kontrakoa egiten dute, puntuazioa jaitsi, hain zuzen.

2.3.3.i grafikoa. ED13-4EP. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Matematikarako kompetentzian geruzen arabera.



Hasierako puntuazioen eta geruzetan ISEK-en arabera legozkiekeen puntuazioen arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, hau ikusten da:

- A geruza publikoak gainerakoak baino puntuazio nabarmen baxuagoa du.

¹⁴ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderari erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



- B eta D geruza publikoek beren arteko puntuazioak berdindu dituzte eta itunpeko B eta D geruzek baino puntuazio baxuagoak izaten jarraitzen dute. D geruza publikoak itunpeko A geruzaren puntuazio berbera du.
- Itunpeko sareko geruzetan puntuazioak berdindu egiten dira.

2.3.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA


A) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasleen bi herenak baino gehiagok gaztelaniaz egin du *Matematikarako kompetentziako* proba.

	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 19.162	5.866	30,6	13.296	69,4

Kompetentzia honetako emaitzak probako hizkuntzaren arabera aztertzen direnean, ikusten da proba gaztelaniaz egin duten ikasleek euskaraz egin dutenek baino puntuazio altuagoa lortu dutela, 2011. urtean izan ezik. 2013ko edizioan, aldea bi puntukoa da; hala ere, estatistikoki ez da adierazgarria.


2.3.4.a grafikoa. LH4. Emaitzen bilakaera *Matematikarako kompetentzia* probako hizkuntzaren arabera.



* Grafikorearen eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

Hurrengo grafikoan, 2011 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko errendimendu mailen arabeko ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke errendimendu mailen eta probako hizkuntzaren arabera. Emaitzak alderatzen baldin baditugu, ondorioztatuko dugu proba gaztelaniaz egin duten eta hasierako mailan kokatzen diren ikasleen ehunekoa ez dela aldatu, eta % 0,8ko galera maila aurreratuan kokatuta dagoen ikasleen taldean. Proba euskaraz egin duten ikasleentzat egoera zertxobait desberdina da. Hasierako mailan % 4 puntuko igoera gertatu da eta maila aurreratuan % 0,4ko galera arina.

2.3.4.b. grafikoa. 4º EP. Matematikarako kompetentzian errendimendu mailen bilakaera probako hizkuntzaren arabera



B) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA


Maila honetan, ikasleen % 23 ingururen familia-hizkuntza euskara da. Hori dela eta, % 77k gaztelania edo beste hizkuntza batzuk hitz egiten ditu etxean.

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 18.050	4.207	% 23,3	13.843	% 76,7

2.3.4.c grafikoan, ED9, ED10, ED11 eta ED13 Ebaluazio diagnostikoetan *Matematikarako kompetentzian* ikasleek lortutako emaitza orokorrak ageri dira, betiere, familia-hizkuntza aldagaia kontuan hartuta. Lau edizioen joera berbera da, hau da, euskal hiztuna den ikasleak familia-hizkuntza euskara ez duenak baino emaitza hobekiak lortzen ditu beti. Azken urtean, bi ikasle moten arteko aldea 16 puntukoa da eta alde hori adierazgarria da.

Bilakaera honetan, etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek 2011. urtean lortu dute emaitzarik onena, 270 punturekin. 2013ko puntuazioa da serie osoko bigarren altuena, 256 punturekin. Batez besteko orokorrarekin (253) alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu euskal hiztunak diren ikasleek 12 puntu gehiago lortu dituztela eta estatistikoki adierazgarriak direla. Euskara ez den beste familia-hizkuntza bat duten ikasleei dagokienez, joera oso antzekoa da eta 2011. urteko edizioak lortu du puntuaziorik altuena. 2013. urtean, ikasle horiek 249 puntu lortu dituzte, hau da, serieko bigarren puntuaziorik altuena, baina kasu honetan, 4 puntuko aldea dago kompetentziaren batez besteko orokorrarekin eta ikasleak batez besteko orokorraren azpitik kokatzen dira nabarmen.

2.3.4.c grafikoa. LH4. Matematikarako kompetentzia emaitzen bilakaera familia hizkuntzaren arabera.



* Grafikoen eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

2.4. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIA


Konpetentzia honetan, emaitza orokorrak nabarmen egin du okerrera eta 14 puntuko jaitsiera izan du. Geruza guztien puntuazioak ere behera egin du.

Hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak % 50 inguru egin du gora eta % 35 inguru egin du behera maila aurreratua lortu dutenen kopuruak.

2.4.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

2009an lehen aldiz *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako* konpetentzia ebaluatu zenean, 250 puntuko batez besteko puntuazioa ezarri zen. 2013an, bigarren aldiz ebaluatu da. 236 puntuko batez besteko puntuazioak jaitsiera nabarmena adierazten du (ikus 2.4.1.a grafikoa).

2.4.1.a grafikoa. LH4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian emaitza orokorren bilakaera.



Puntuazioan izan den beherakada garrantzitsuaren arrazoia neurtzeko tresnaren aldaketa handiak izan daitezke.

Aldaketak errendimenduko proban: 1.1 atalean adierazi zen moduan, 2009an, konpetentzia hau neurtzeko arkatx eta paperezko proba espezifikoak erabili zen, eta 2013an, konpetentzia hau *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziarekin* batera ebaluatu da. *Kultura-zientziako konpetentzia* neurtzeko 2013an erabili diren item guztiak 2009an ere erabili ziren arren, azken edizioan bi koadernotan banatu ziren eta itemen guztizko kopurua 2009an baino baxuagoa izan zen¹⁵.

Aldaketa horien eraginez, erantzun egokien ehunekoa gutxitu egin da, %61,3tik %54,8ra pasatuz. Errakuntzen ehunekoa, aldiz, gora egin du %36,3tik %41,7ra; eta zuriz utzitako erantzunen ehunekoa %2,4tik %3,5ra igo da. Laburbilduz, zuriz utzitako erantzunak bazterturik, erantzun egokiak jaisten dira %62,80tik 56,80ra eta errakuntzak handitzen dira %37,20tik 43,20ra.


¹⁵ Ikasle guztiek egin behar zituzten 26 itemek osatzen zuten 2009ko proba. 2013an, berriz, 16 item erabili ziren, bi koadernotan banatuta (haietariko 10 item komunak ziren eta hiru item desberdinak).

Hala eta guztiz ere, egun, ezin da ez baztertu puntuazioan izan den beherakada konpetentzia honetako trebezien domeinuan izan litekeen jaitsierak eragin duela.

2.4.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2013an, puntuazio orokorrean izandako jaitsiera errendimendu mailen arabera egindako ikasleen banaketan adierazten da (2.4.2.a grafikoa). Batetik, gora egin du hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak (% 17,0tik % 25,6ra), eta, bestetik, maila aurreratuan atzerakada handia gertatu da (% 30,4tik % 19,8ra). 2013an, erdi-maila finkatu egin da (% 54,7); izan ere, 2009an ikasle gehienak biltzen zituen maila izan zen (% 52,6). Orotara, ikasleen ia % 75ek gaintitu ditu errendimenduko hasierako mailari esleitutako trebeziak.

2.4.2.a grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian.



Hala ere, 2009an, talde horren kopurua % 83koa izan zen.

2.4.3. BILAKAERA GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA-EREDUA ETA HEZKUNTZA-SAREA


A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

2.4.3.a grafikoa jaitsiera erakusten du geruza guztietan. 2009ko eta 2013ko emaitzen arteko alderaketak erakusten du jaitsiera nabarmena izan dela 5 geruzetan –12 eta 16 puntu artekoa–; A geruza publikoa gainerako geruzen erdia jaitsi da gutxi gorabehera (7 puntu). Bestalde, geruzen ordenan aldaketa gutxi gertatu dira: itunpeko hiru geruzek jarraitzen dute buruan (A, D eta B, ordena horretan), D geruza publikoa jarraian, eta ondoren, ezohiko aldaketa gertatu da Ebaluazio diagnostikoan, A geruza publikoak B geruza publikoa gaintu du, A geruza publikoaren puntuazioan jaitsiera txikiagoa izan delako eta B geruza publikoa delako gehien jaitsi den geruza (16 puntu). 2013an, itunpeko A geruzak soilik gaintu du 2009ko batez besteko puntuazioa.

2013an lortutako puntuazioak geruzen arabera aztertuta, ondoriozta genezake alde guztiak estatistikoki adierazgarriak direla. A geruza publikoaren eta D geruza publikoaren arteko aldeak dira salbuespenak, ez baitira adierazgarriak.

Ikus daitekeen moduan, geruzek Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian duten jokaera beste oinarriko konpetentzietan izaten dutenekiko desberdina da (A geruza publikoak gainerako geruzekiko duen ohiko alderik ez da nabari konpetentzia honetan. Gainera, zenbaitetan, B geruza publikoa gaintu ere egiten du eta puntuazioa D geruza publikoaren eta itunpeko B geruzarenaren oso hurbilekoa da). 2.4.3.c atalean, lehen hipotesiak ageri dira eta ondoren berretsi beharko dira.

2.4.3.a. grafikoa. LH4. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian emaitzen bilakaera geruzen arabera.



B) IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

A geruzak publikoan, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoaren igoera nabarmendu behar da batez ere, erdi-mailaren kalterako. Neurri txikiagoan, maila aurreratuko ehunekoak behera egin du. Edonola ere, erdi-maila eta maila aurreratuak EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen dira kompetentzia honetan.

B geruzak publikoak okerrera egin du besteek baino nabarmenago: hasierako mailak gora egin du (2009tik 2013ra 12 puntu), erdi-mailan jaitsiera arina izan da (% 50era iristen ez den bakarra) eta oso jaitsiera handia maila aurreratuan, sei geruzen artetik ehunekorik baxuena duen artean.

D geruzak publikoak apur bat batez besteko orokorraren baloreen azpitik dagoen banaketa eskaintzen du: ikasleen laurdena baino zertxobait gehiago hasierako mailan dago (2009tik 2013ra ia 10 puntu egin du gora), erdi-maila 2009ko balioan mantentzen da gutxi gorabehera eta maila aurreratuak 10 puntu baino gehiago egin du behera.


Itunpeko A geruzak erakusten du banaketarik onena, 2009ko osarearekin alderatuta jaitsi egin den arren: hasierako mailaren igoera ez da 5 puntura iristen eta % 11 baino zertxobait altuago kokatzen da, sei geruzetatik baxuena; erdi-maila batez besteko orokorraren antzekoa da, eta maila aurreratuak, ia 17 puntu galdu dituen arren, ikasleen herena baino zertxobait gehiago biltzen du. Hori da sei geruzetatik garrantzitsuenak.

Itunpeko B geruzak da kompetentziaren batez besteko banaketara gehien hurbiltzen dena: laurdena baino zertxobait gehiago hasierako mailan (8 puntu egin du gora), erdia baino gehiago erdi-mailan eta ia % 20 maila aurreratuan (ia 9 puntuko jaitsiera).


Itunpeko D geruzak banaketa ia simetrikoa eskaintzen du muturretan: % 21 baino zertxobait gehiago hasierako mailan eta maila aurreratuan. Sei geruzetan erdi-maila garatuago egongo da. Nabarmendu beharrekoa da hasierako mailak 8 puntu egin duela gora, eta maila aurreratuan izan duen galera handia, 12 puntu baino gehiago.




2.4.3.b grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. A publikoa.*




2.4.3.c grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. Itunpeko A.*




2.4.3.d grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. B publikoa.*




2.4.3.e grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. Itunpeko B.*



2.4.3.f grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. D publikoa.*



2.4.3.g grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-kulturarako kompetentzian. Itunpeko D.*




C) 2013KO EMAITZAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

ED13an *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian* sei geruzek lortutako puntuazioak eskaintzen ditu hurrengo grafikoak.

Itunpeko A eta D geruzek ED13an lortutako batez bestekoa (236 puntu) gainditu dute, eta itunpeko B geruzak berdindu egin du. Hiru geruza publikoak ez dira EAEko batez besteko orokorrera iristen.

2013an lortutako puntuazioak geruzen arabera aztertuta, ondoriozta genezake alde guztiak estatistikoki adierazgarriak direla. A geruza publikoaren eta D geruza publikoaren arteko aldeak dira salbuespenak, ez baitira adierazgarriak.

2.4.3.i grafikoa. ED13-LH4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziako emaitzak geruzen arabera.



ISEK mailaren arabera egindako emaitzen azterketatik hau ondoriozta dezakegu:

- ISEKen maila zenbat eta altuagoa izan, errendimenduak ere hobera egiten du, ohikoa den moduan. ISEK maila baxuan, hasierako errendimendu mailan kokatutako kopurua (% 36,2) ISEK maila altuko taldearen bikoitza da (% 18,4). Gainera, maila altuko talde horretan, % 25 inguru errendimendu maila aurreratuan dago. Hori dela eta, ISEK maila baxuko taldea % 13,4ra iritsi da maila aurreratuan.
- Maila baxuko eta maila erdi-baxuko ikasleak konpetentziaren batez bestekoaren azpitik kokatzen dira. Hiru geruza publikoek EAEko batez bestekoaren azpitik dagoen ISEK maila dute.
- ISEK talde bakar batek ere ez du lortu 2009ko konpetentziaren batez bestekoa. Guztiak 10 puntu edo gehiago egin dute behera.
- Tarterik handiena maila erdi-baxuaren eta erdi-altuaren artean kokatzen da.


Hurrengo grafikoak geruza bakoitzerako bi puntuazio eskaintzen ditu. Lehenengoa –ezkerreko zutabea– *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziaren* ebaluazioan lortu den puntuazio erreala da. Bigarren zutabeak –eskuinekoak– ISEKen eragina kontrolatu osteko geruzaren puntuazioa ordezkatzeko du.

Oro har, ISEK maila baxueneko geruzen puntuazioek gora egiten dute indize honen eragina kentzean, eta, alderantziz, ISEK maila handieneko taldeek zenbait puntu galdu ohi dituzte. *Zientzia-, teknologia- eta*



osasan-kulturarako konpetentziaren kasuan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, joera hori betetzen da; hau da, geruza publiko guztiek beren puntuazioa handitu dute eta itunpeko hiru geruzek, aldiz, puntuazioa murriztu egin dute.

2.4.3.j grafikoa. ED13-LH4. Batez besteko puntuazioa eta Zientzia-, teknologia- eta osasan-kulturarako konpetentzian ISEK kontrolatu osteko puntuazioa geruzen arabera.



Hala eta guztiz ere, ohiko joera okertu duen fenomeno bat gertatu da: A geruza publikoak, ISEK maila baxuena duenak, 14 punturekin egin du gora puntuazioan, eta gainerako geruzak gairitu eta alde adierazgarria ezarri du (itunpeko A geruzan izan ezik, ISEKen eragina kendu ostean ere nagusitasunari eusten dio). Geruzen arteko gainerako aldeak, txikiagoak diren arren, adierazgarriak dira, D geruza publikoaren eta itunpeko B geruzaren artean dagoena salbuetsita.

2.4.3.a atalean dagoeneko adierazi dugu Zientzia-, teknologia- eta osasan-kulturarako konpetentziako geruzen jokaera gainerako oinarrizko konpetentziek izaten duteneko desberdina dela, eta egiaztatu ahal izan den moduan, geruzen emaitzetan ISEKen eragina kentzean, ezohiko joera hori berrestez gain, joera areagotu egiten da.

2.4.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

A) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA¹⁶


Hurrengo taulan, Zientzia-, teknologia- eta osasan-kulturarako konpetentzian proba egindako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ageri dira, baita proba zer hizkuntzatan egin zen ere:

	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 18.842	16.013	85	2.829	15

¹⁶ Ikasleen galdera-sortan, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

2.4.4.a grafikoak erakusten du 2013an, proba gaztelaniaz egin zutenekiko aldeko joera mantentzen dela. Dena den, aldea handitu egin da eta 16 puntutatik 23 puntutara igaro da. Hain zuzen ere, 2013an proba gaztelaniaz egin dutenek 2009ko 250 puntuko batez bestekoa gainditu dute; aldiz, proba erantzuteko euskara erabili dutenak 4 puntura geratu dira 2013ko batez bestekoaren azpitik (eta 2009ko batez bestekoak baino 18 puntu gutxiago lortu dituzte). Alde guztiak estatistikoki adierazgarriak dira.


2.4.4.a grafikoa. LH4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian emaitzen bilakaera proba hizkuntzaren arabera.



* Grafikoaren eskala 220an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

Hurrengo grafikoan, 2009 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian*, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke probako hizkuntzaren arabera.

2.4.4.b grafikoa. LH4. Zientzia, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian, proba-hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



ED09tik ED13ra batez besteko puntuazioak behera egiteak (250 puntutik 236 puntura) hasierako mailan kokatuko diren ikasleen kopurua handitzea ekarriko luke. Hala eta guztiz ere, aurreko grafikoak agerian jartzen du igoera hori (9 puntu) proba euskaraz egin duten ikasleetan soilik gertatu dela. Aldiz, zertxobait murriztu da gaztelaniaz egin dutenen artean. Probako hizkuntzaren arabera emaitzen alde hori maila aurreratuan ere ageri da: nolabaiteko igoera gaztelaniaz erantzun dutenen taldean eta jaitsiera nabarmena proba euskaraz egin dutenen taldean.



ED09tik ED13ra, erdi-mailak 1 eta 3 puntu artean egin du behera; izan ere, ikasleek hasierako mailarako eta maila aurreraturako joera erakutsi dute. Hala eta guztiz ere, ikasleen erdia baino gehiago erdi-mailan dago kokatuta, bai proba euskaraz egin dutenak, bai gaztelaniaz egin dutenak.

B) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA


Hurrengo taulan, *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian* aintzat hartu diren Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ageri dira, baita horien familia-hizkuntza ere:

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 18.837	4.741	25,2	14.096	74,8

Hezkuntza maila honetan, ikasleen % 25 ingururen familia-hizkuntza euskara da eta ia % 75en familia-hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

Hurrengo grafikoan, ED09 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian* lortutako emaitza orokorrak aurkezten dira, betiere, familia-hizkuntza aldagaia aintzat hartuta.


2.4.5.a grafikoa. LH4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian emaitzen bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.



ED13an, familia-hizkuntza euskara dutenen aldeko joerak jarraitzen du; izan ere, puntuazioan beherakada orokorra gertatu arren, konpetentziaren batez besteko orokorra gaintzen dute (ED09an +20 puntu lortu zituzten eta ED13an +15 puntu, EAeri dagozkion batez bestekoekin alderatuta). Familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleek ez dute batez besteko orokorra lortu (236 puntu ED13an), baina, oro har, euskal hiztunen taldearekin aldea zertxobait murriztu da, hau da, ED09an 22 puntuko aldea zen eta ED13an 19koa. Bistakoa denez, alde horiek guztiak adierazgarriak dira.

Hurrengo grafikoak bi edizioetako (ED09 eta ED13) ikasleen ehunekoen banaketa erakusten du errendimendu mailen arabera eta familia-hizkuntzaren arabera *Zientzi-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian*.

2.4.5.b grafikoa. LH4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturako kompetentzian, familia hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



* ED09n, familia-hizkuntzaren arabera azterketa egiteko, gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasleak eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituztenak banatu ziren. Hemen ageri diren datuak gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei soilik dagokie¹⁷.

ED13an, erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoa ez zen askorik aldatzen familia-hizkuntzaren arabera. Aldiz, maila aurreratuan alde handia ikusten da, 11 puntu baino zertxobait handiagoa euskal hiztunen taldearen alderako. Alde hori, hasierako mailan, alderantzikatu egiten da; izan ere, euskaraz egin ez dutenen taldeak ia 11 puntu gehiago ditu.

ED09ko eta ED13ko edizioetako emaitzak alderatzen baldin badira, konturatuko gara bi ebaluazioetan erdi-mailan dagoela ikasleen % 50a baino gehiago. Hala ere, euskal hiztunen taldeak izan du aldaketarik handiena, 3,4 puntuko igoerarekin. Gainera, kompetentziaren jaitiera orokor nabarmena, batetik, maila aurreratuan izan da, 12,9 puntuko murrizketarekin euskal hiztunen taldean, eta 11,6 punturekin euskal hiztunak ez direnen taldean. Bestetik, hasierako mailan izan da, bi hizkuntza-taldeetan gora egin baitu: 8,4 puntu euskal hiztunen taldean eta 10,1 euskal hiztunak ez direnen taldean.

¹⁷ Ikus www.isei-ivei.net. Lehen Hezkuntzako 4. mailako "2009ko emaitzen txosten orokorra".



2.5. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Konpetentzia honetan, emaitza orokorra ez da aldatu 2010etik 2013ra.

Maila aurreratuan eta hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak gora egin du zertxobait.

Itunpeko hiru geruzek itunpeko hiru geruza publikoek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Maila aurreratuan igoera nabarmenagoa gertatzen diren geruzak A geruza publikoa eta itunpek A geruza dira. Geruza guztietan, gora egin du (gutxiago edo gehiago) hasierako mailan dauden ikasleen kopuruak.


Probako hizkuntzari dagokionez, 2013an lortu zen gaztelaniaz erantzun zutenen arteko emaitzarik onena, 2010ean ikusi zen moduan.

2.5.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia 2010ean ebaluatu zen lehen aldiz, eta orduan, 250 puntuko batez besteko puntuazioa ezarri zen. 2013an egin da berriro ebaluazioa, eta 1 puntuko igoera arina besterik ez da izan (ikus 2.5.1.a grafikoa); adierazgarria izateko ez da nahikoa.

Nabarmendu beharrekoa da puntuazioko egonkortasun hori mantendu egiten dela, nahiz eta 2010ean paper-euskarria erabili zen eta 2013an ikasleek proba ordenagailu bidez egin behar izan zuten.


2.5.1.a grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian emaitza orokorren bilakaera.



2.5.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Ikasleen % 80k baino zertxobait gehiagok gaintu du hasierako maila, eta heren bat inguru errendimendu maila aurreratuan dago Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian.

2.5.2.a. grafikoa. LH4. Errendimendu mailen bilakaera
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian.



2010 eta 2013 arteko puntuazio orokorrak aldaketa nabarmenik izan ez duen arren, hiru konpetentzia mailetan zenbait aldaketa izan dira ikasleen banaketan. Bi muturrak igo egin dira zertxobait (2 puntu baino gutxiago) eta erdi-mailak behera egin du (3 puntu baino zertxobait gehiago).

2.5.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA-EREDUA ETA HEZKUNTZA-SAREA

A) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA


2.5.3.a grafikoa, 2010 eta 2013ko bi proben artean, sei geruzetan gertatu diren aldaketak adierazten ditu:

- D geruza publikoko eta itunpeko A geruzako igoerak soilik dira estatistikoki adierazgarriak. Grafikoa erakusten dituen gainerako aldeak ez dira adierazgarriak.

2013ko emaitzak geruzetan alderatzen baldin badira, honako hau adieraz daiteke:

- Itunpeko hiru geruzek hiru geruza publikoek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte.
- A eta D geruza publikoek B geruza publikoa gainditu dute, baina A eta D geruzen artean ez dago alde adierazgarririk.
- Itunpeko A geruzak itunpeko B eta D geruzek baino emaitza altuagoak lortu ditu, baina azken bi horien arteko aldeak ez dira estatistikoki adierazgarriak.

2.5.3.a grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia emaitzen bilakaera geruzen arabera.



Ikus daitekeen moduan, geruzek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia* duten jokaera beste oinarrizko kompetentzietan izaten dutenekiko desberdina da (A geruza publikoak gainerako geruzekiko duen ohiko alderik ez da nabari kompetentzia honetan; izan ere, sare publikoko gainerako bi geruzen puntuazioak gainditu ere egiten ditu, eta puntuazioa itunpeko D eta B geruzen oso hurbilekoa da).

B) IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Emaitza orokorrek datuen egonkortasun handia erakusten duten arren, geruza bakoitza aztertzeko garaian ez da gauza berbera gertatzen:


- Ikusi dugu **A geruza publikoan** puntuazio orokorraren igoera ez dela adierazgarria 2010 eta 2013 artean. Hala eta guztiz ere, ikasleen banaketan egitura berri bat sortu da: hasierako mailak gora egin du zertxobait, erdi-mailak 16 puntu egin du behera eta maila aurreratuan dauden ikasleen artean 12 puntu baino zertxobait gehiagoko igoera nabarmena gertatu da. 2010ean, maila aurreratuan, kompetentziako batez bestekoak baino ehuneko askoz ere baxuagoa erakutsi zuen; aldiz, 2013an, zertxobait gainditu du batez bestekoa.
- **B geruza publikoak** bilakaera egonkorragoa erakusten du. Ikasle kopuru handia dago hasierako mailan, sei geruzetako kopururik altuena, eta 2 puntu baino zertxobait gehiago egin du gora; erdi-mailako beherakada eta hasierako mailako gorakada maila berberean daude; eta azkenik, maila aurreratua ia ez da aldatu ere egin.
- **D geruza publikoak** bilakaera positiboa, baina arina erakusten du: hasierako mailak puntu hamarren batzuk egin du gora, eta batez ere, erdi-mailatik maila aurreratura egin du salto txiki bat, horrek egin baitu gora 2,5 puntu. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuan, oraindik ez da iritsi kompetentziako erdi-mailara.
- **Itunpeko A geruzan** nabarmendu beharrekoa da maila aurreratuak izan duen igoera; % 62 gainditu du (11 puntuko igoera izan du 2010etik); igoera hori erdi-mailarengatik gertatzen da.




Azkenik, hasierako mailak oso igoera arina izan du; hala ere, sei geruzen artetik ehunekorik baxuenekoa da.

- **Itunpeko B geruzak** konpetentziaren batez bestekoak baino banaketa zertxobait hobea erakusten du eta aldeak daude 2010 eta 2013 artean: hasierako mailak 1 puntu soilik egin du gora; erdi-mailak zertxobait gehiago galdu du, eta azkenik, maila aurreratua puntu erdi bat besterik ez du gora egin.
- **Itunpeko D geruzak** itunpeko B geruzaren antzeko egitura du (zertxobait gutxiago hasierako mailan eta zertxobait gehiago erdi-mailan). Hala eta guztiz ere, 2010eko datuekin alderatuta, hasierako mailan ia 3 puntuko igoera eta erdi-mailan 3 puntuko jaitsiera (gutxi gorabehera) gertatu da.


2.5.3.b grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian. A publikoa*




2.5.3.c grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian. Itunpeko A.*



2.5.3.d grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian. B publikoa*




2.5.3.e grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian. Itunpeko B*






2.5.3.f grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian. D publikoa



2.5.3.g grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian. Itunpeko D.




C) 2013KO EMAITZAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

ED13an, Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian sei geruzek lortutako puntuazioak eskaintzen ditu hurrengo grafikoak.

Emaitzak ISEK mailaren arabera aztertzen baldin baditugu, ohikoa den bezala, betiko printzipioa bete egiten da oraingo honetan ere; hau da, ikasleen ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, emaitzak orduan eta hobeak direla. Aldeak adierazgarriak dira beti.

Itunpeko geruzek geruza publikoak gainditzen dituzte; gainera, alde horiek adierazgarriak dira. Itunpeko geruzen puntuazioek soilik gainditzen dute EAEn kompetentzia honetan lortutako batez bestekoa (251 puntu). Emaitzarik onena itunpeko A geruzak lortu du (285 puntu) eta baxuena B geruza publikoak (238 puntu). 47 puntuko alde handia dago.

2.5.3.h grafikoa. ED13-LH4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.



ISEK mailaren arabera egindako emaitzen azterketatik hau ondoriozta dezakegu:




- ISEKen maila zenbat eta altuagoa izan, errendimenduak ere hobera egiten du, ohikoa den moduan. ISEK maila baxuan, hasierako errendimendu mailan kokatutako kopurua (% 28) ISEK maila altuko taldeak duenaren bikoitza baino zertxobait gehiago da, eta ISEK ertain-baxuko taldeak ia bikoitza egiten du (% 23,4). Gainera, ISEK maila altuko talde horren osieran, nabarmendu beharrekoa da % 41 maila aurreratuan dagoela, ISEK maila ertain-baxuko eta baxuko taldekoak baino 16-18 puntu (hurrenez hurren) gorago.
- Maila baxuko (237 puntu) eta ertain-baxuko (242) ikasleak konpetentziaren batez bestekoaren azpitik kokatzen dira (251). Aldiz, EAEko batez bestekoa ISEK ertain-altuko taldeak (254 puntu) gainditzen du, eta batez ere, ISEK maila altuko taldeak (262 puntu).
- Hiru geruza publikoen ISEKeko maila EAEko batez bestekoenaren azpitik dago.
- ISEKeko taldeek egonkortasun handia dute ED09 eta ED13 artean, eta puntuazio alde adierazgarririk ez dago. ISEK ertain-altuko taldeak soilik erakutsi du hobekuntza puntuazioan (4,2 puntu). Alde hori estatistikoki adierazgarria da.
- Tarterik handiena maila ertain-baxuaren eta ertain-altuaren artean dago kokatuta (13 puntu).

Hurrengo grafikoak geruza bakoitzerako bi puntuazio eskaintzen ditu. Lehenengoa –ezkerreko zutabea– Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren ebaluazioan lortu den puntuazio erreala da. Bigarrenak –eskuineko zutabea– ISEKen eragina kontrolatu osteko geruzaren puntuazioa adierazten du.

Oro har, ISEK maila baxueneko geruzek puntuazioa handitzen dute indize honen eraginak balio gabetzean, eta alderantziz, ISEK maila handieneko taldeek zenbait puntu galdu ohi dituzte. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* kasuan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, joera hori betetzen da; hau da, geruza publiko guztiek beren puntuazioa handitu dute eta itunpeko hiru geruzek, aldiz, puntuazioa murriztu egin dute, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

2.5.3.i grafikoa. ED13-LH4. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian geruzen arabera.



Hala eta guztiz ere, ohiko joera okertu duen fenomeno bat gertatu da: A geruza publikoak, ISEK maila baxuena duenak, 16 punturekin egin du gora puntuazioan, eta gainerako geruzak gainditu (itunpeko A geruza izan ezik) eta alde adierazgarria ezarri du. Geruzen arteko gainerako aldeak, txikiagoak diren arren, adierazgarriak dira, D geruza publikoaren eta itunpeko B geruzaren artean dagoena salbuetsita.

2.5.3.a atalean dagoeneko adierazi dugu *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* geruzen jokaera gainerako oinarrizko konpetentziek izaten dutenekiko desberdina dela, eta egiaztatu ahal izan den moduan, geruzen emaitzetan ISEKen eragina kentzean, ezohiko joera hori berrestez gain, joera areagotu egiten da.

2.5.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

A) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA¹⁸


Hurrengo taulan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ageri dira, baita proba egindako hizkuntza ere:

	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 18.838	16.009	85	2.829	15

2010ean *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* ebaluatu zenean, emaitzetan alde garrantzitsua gertatu zen galderak gaztelaniaz erantzun zituzten ikasleen mesedetarako (22 puntu), euskaraz erantzun zituztenekin alderatuta, betiere. Joera hori areagotu egin da 2013an (33 puntu).

Adierazi beharrekoa da 2010 eta 2013 artean proba euskaraz egin zutenen artean emaitzan izandako 1 puntuko hobekuntza ez dela adierazgarria; aldiz, proba gaztelaniaz egin zutenen taldean izandako igoera estatistikoki adierazgarria da (12 puntu).

2.5.4.a grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian emaitzen bilakaera proba hizkuntzaren arabera.




* Grafikoa eskala 220an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

¹⁸ Ikasleen galdera-sortan, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

Hurrengo grafikoan, 2010 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke probako hizkuntzaren arabera.

2.5.4.b grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian, probako hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



Kompetentzia honetako azterketa orokorraren hasieran jakinarazi den moduan, ED10etik ED13ra errendimendu orokorra ez da aldatu. Hala eta guztiz ere, xehetasun-azterketek adierazten dute aldaketak daudela barneko egiturari. Horrekin lotuta, aurreko grafikoak adierazten zuen proba gaztelaniaz egiten duten ikasle taldeak izan duen aurrerapena. Aldiz, proba euskaraz egin dutenen taldean ez da aldaketarik izan.

Aurreko grafikoan ikus daiteke proba euskaraz egin dutenen taldean erdi-mailatik maila aurreraturako (1,6 puntu egin du gora) eta hasierako mailarako (1 puntu soilik egin du gora) jauzi arina izan dela. Aldiz, proba gaztelaniaz egin dutenen taldean aldaketak nabarmenagoak izan dira: % 91 inguruk gainditu du hasierako maila 2013an; baina batez ere, maila aurreratua nabarmendu behar da, ikasleen % 57,1 biltzen baitu (14,3 puntu egin du gora), eta neurri handiagoan, erdi-mailaren beherakada, % 45,5etik % 34,0ra.

B) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA


Hurrengo taulan, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* aintzat hartu diren Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ageri dira, baita horien familia-hizkuntza ere:

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira: 18.833	4.740	25,2	14.093	74,8

Hezkuntza maila honetan, ikasleen % 25 ingururen familia-hizkuntza euskara da eta ia % 75en familia-hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

Hurrengo grafikoan, ED10 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* lortutako emaitza orokorrak aurkezten dira, betiere, familia-hizkuntza aintzat hartuta.


2.5.4.c grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian emaitzen bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.



ED13an, familia-hizkuntza euskara dutenen aldeko joerari eutsi zaio; izan ere, talde honek kompetenziaren batez besteko orokorra gainditu du (ED10ean +8 puntu lortu zituen eta ED13an aldea +12 puntura arte iritsi da), bi edizioen artean euskaldunen taldeak 4 puntuko hobekuntza izan baitu. Familia-hizkuntza euskara ez den besteren bat duten ikasleek puntuazio berbera lortu dute bi ebaluazioetan (248 puntu) eta ez da batez besteko orokorrera iristen (251 puntu ED13an). Alde horiek guztiak adierazgarriak dira.

Hurrengo grafikoak bi edizioetako (ED10 eta ED13) ikasleen ehunekoaren banaketa erakusten du errendimendu mailen arabera eta familia-hizkuntzaren arabera *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*.

2.5.4.d grafikoa. LH4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian, familia-hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



Euskal hiztunen taldeko errendimendu mailen arabera egituraren aldaketa gertatu da erdi-mailatik maila aurreratura. ED13an % 5,8 egin du gora ED10ekin alderatuta. Orotara, talde honetako ikasleen % 86,5ek hasierako mailako kompetentziak gainditu ditu.

Bestalde, euskal hiztunen taldean ez dauden ikasleen % 79k (familia-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat) hasierako maila (ED13an % 2 egin du gora, erdiko mailak behera egin duen proportzio



berbera ia-ia) gairiditu du. Maila aurreratuak ia-ia ez du aldaketarik izan, ikasleen % 30 inguru biltzen du (euskal hiztunen taldeak baino % 9,5 gutxiago).



3. EMAITZAK ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA



Aldagaien laburpena

Errendimendua ikasleen sexuaren arabera

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, nesken emaitzak mutilenak baino nabarmen altuagoak dira. Bi sexuen arteko aldeak guztiz erregularrak dira 2009tik 2011ra.
- *Matematikarako konpetentzian*, mutilek neskek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*, 2013an, lehen aldiz, mutilek neskek gainditu dituzte. 2009an neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu zituzten, 2011n parekatu egin ziren eta 2013ko azken edizioan, mutilek neskek gainditu dituzte.
- *Zientzia-kulturan eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzietan*, nesken errendimendua mutilena baino nabarmen adierazgarriagoa da. Hori bera gertatzen zen konpetentzia hauek ebaluatu ziren aurreko aldian ere.

Errendimendua ikasmilarekiko adin-egokitasun egoeraren arabera

- Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek (2003. urtean jaioetakoak) konpetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta.



Aurreko azterketetan bezala, analisietarako bi aldagai garrantzitsu aukeratzen dira. Aldagai horiek ikasle euskaldunen emaitzen azalpen-gaitasun handia dute: ikaslearen sexua eta adin-egokitasun egoera hezkuntza mailan.

Horietako bakoitzetik azterketa zehatz bat egiten da eta dagozkien emaitzak eskaintzen dira; era beran, 2009ko eta 2013ko probako emaitzen artean alderaketak ezartzen dira ebaluazio horietan mantentzen diren hiru oinarritzko kompetentzietan. Horiei ED13ko edizioan ebaluatutako kompetentzia aldakorrak gehitu dizkiegu.

Txosteneko atal honetako grafikoetan irakurketa errazteko kompetentzia bakoitzeko emaitzak batera agertzen diren arren, **ez da egokia horietako bakoitzean lortutako errendimendua beren artean alderatzea**, izan ere, ezarritako ebaketa-puntuak ez dira berdinak eta kompetentzia bakoitzaren bilakaera desberdina izan da.

3.1. EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, Zientzia-kulturan, eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, nesken errendimendua mutilena baino nabarmen altuagoa da. Aldiz, mutilek neskek baino errendimendu altuagoa lortu dute Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta Matematikarako konpetentzian.

3.1.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo taula honek Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilek ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna ere:

ED13. LHko 4. maila. Ikasleen sexuaren arabera ebaluatutako konpetentzietan lortutako puntuazioak.

Konpetentziak	Neskek	Mutlak	Aldea	Adierazgarritasuna*
Matematikarako konpetentzia	252	254	-2	Bai
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	259	262	-3	Bai
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	256	244	12	Bai
Zientzia-kulturarako konpetentzia	241	231	10	Bai
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	257	244	13	Bai


* BAI:% 95eko alde adierazgarria.

Aurreko taulako datuetatik ondorioztatutako dugu alderik handienak neskek mutilek baino errendimendu handiagoa lortzen duten konpetentzietan gertatzen direla; hau da, handitik txikira, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (13 puntu), *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (12 puntu) eta *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian* (10 puntu).

Bestalde, alde txikiarekin bada ere, mutlak dira nagusi *Matematikarako konpetentzian* (2 puntu), eta lehen aldiz Ebaluazio diagnostikoan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* errendimendu altuagoa eta adierazgarria (3 puntu) erakutsi dute. Konpetentzia honetan, bi taldeek, 2011n, puntuazio berbera izan zuten (256).




3.1.1.a grafikoa. ED13-LH4. Ebaluatutako kompetentzietako emaitzak sexuaren arabera.



• Oinarrizko bost kompetentzietako emaitzen bilakaera ikasleen sexuaren arabera.

3.1.1.b grafikoan, mutilen eta nesken bilakaera ikusten da 2009 eta 2013 artean ebaluatu diren hiru oinarrizko kompetentzia egonkorretan.

3.1.1.b. grafikoa. LH4. Kompetentzia bakoitzeko emaitzen bilakaera sexuaren arabera.



* Grafikoaren eskala 235ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

Orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoan hiru kompetentzia egonkorretako emaitzen bilakaerari begira, honako honetaz jabetuko gara:




- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, nesken emaitzak mutilenak baino altuagoak dira, eta diferentziak estatistikoki adierazgarriak dira. Aldeak guztiz erregularrak dira aztertutako aldian zehar (10 puntu lau edizioetan).
- Joera berbera da *Matematikarako konpetentzian* ere; bertan, mutilek neskek baino emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte ebaluazioa egin den lau urteetan (2 eta 6 puntu artean).
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*, 2013an, lehen aldiz, mutilek neskak gainditu dituzte. 2009an ikasle neskak nagusitu ziren (6 puntu) eta 2011n berdintasuna gertatu zen. 2013ko azken edizioan berriz, mutilak nagusitu ziren (3 puntu); izan ere, neskek lau edizioetako errendimendurik onena lortu dute.

Nabarmendu behar da 2009. urtearekin alderatuta, bi sexuek emaitzak hobetu dituztela ebaluatu diren hiru konpetentzia egonkorretan.

Konpetentzia aldakorretan –*Zientzia-kulturarako konpetentzian eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*– neskek puntuazio hobekak lortu dituzte. *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziaren* kasuan, 2009tik 2013ra beherakada handia gertatu da batez besteko puntuazioan eta puntuazioko jaitsiera hori homogeneoa da bi sexuetan, 10 puntukoa. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, aldiz, aldaketa txikiak gertatu dira; nesketan 1 puntuko igoera izan da (aldea estatistikoki adierazgarria da) eta 1 puntuko jaitsiera mutiletan (ez da adierazgarria). Horrela, aldeak gora egin du zertxobait, 11 puntutik 13 puntura.

3.1.1.b. grafikoa. LH4. Konpetentzia bakoitzeko emaitzen bilakaera sexuaren arabera.



* Grafikoa eskala 210ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

3.1.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo grafikoetan, ikasleen sexuaren arabera errendimendu mailen banaketa ikus daiteke. Datu orokorretan bezala, hasteko, hiru konpetentzia egonkorrei dagokien grafikoa erakusten da, eta jarraian, edizio guztietan ebaluatu gabeko konpetentzien grafikoa.




3.1.2.a grafikoan ikus daitekeen moduan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, errendimendu mailen arabera osarak nesken aldeko 10 puntuko aldea adierazten du. Maila aurreratuan 6 puntu baino zertxobait gehiago dituzte eta hasierako mailan 9 puntu baino gutxiago.

Beste bi konpetentzia finkoetan, aldeak txikiagoak dira. Hori dela eta, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, gogoratuko duzuen moduan mutilek 3 puntuko aldea atera die neskei, alde hori ia beste 4 puntukoa da maila aurreratuan eta 4 puntukoa baino zertxobait gutxiagoko erdi-mailan. Bi sexuek ehuneko baxua eta berdina dute hasierako mailan.

Matematikarako konpetentzian, maila aurreratuan, mutilek neskek baino 2,5 puntu gehiago lortu dituzte –puntuazio orokorrean 2 puntukoa zen–. Konpetentzia honetan, hasierako mailan, 1 puntuko alde txikia gertatu da, kasu honetan nesken aldekoa.

3.1.2.a grafikoa. ED13-LH4. Errendimendu mailen arabera banaketa ikasleen sexua aintzat hartuta.




Konpetentzia aldatzeko dagokien, 2013ko ebaluazioan erakutsi duten joera desberdina egitura desberdinean ere ageri da, sexuaren arabera mailatan banatuta.

Zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturarako konpetentzian, neskek mutilek baino 10 puntu gehiago lortu dituzte eta horrek maila aurreratuan (+4,7 puntu) eta batez ere hasierako mailan (–9 puntu) kokapen hobea lortzen lagundu du.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, 2013ko puntuazio orokorreko aldea handiagoa zen, 13 puntukoa, eta neskek mutilek baino puntu gehiago lortu dituzte nabarmen. +7,6 puntu dituzte maila aurreratuan eta –8,7 puntu hasierako mailan. Ondorioz, nesken % 85 hasierako mailako berezko gaitasunen ginetik kokatzen da. Hori dela eta, mutilen % 77k baino zerbait gutxiagok lortu du hasierako maila hori gaititzea.

3.1.2.b *grafikoa*. ED13-LH4. Errendimendu mailen araberako banaketa ikasleen sexua aintzat hartuta.




Hurrengo grafikoetan, 2009 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoetan oinarritzko bost kompetentzietan kompetentzia mailetan mutilek eta neskek izan duten bilakaera ageri da.

a) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan sexuen araberako ikasleen banaketaren bilakaera

3.1.2.c *grafikoak* ED09, ED10, ED11 eta ED13 edizioetan Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduko hiru mailetan nesken eta mutilen ehunekoen bilakaera adierazten du.

3.1.2.c grafikoa. LH4. ED09-ED10-ED11-ED13. Ikasleen banaketa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan.




Maila aurreratuan, edizio guztietan, neskek mutilek baino ehuneko handiagoak dituzte, 6 eta 7,7 puntu artean. Hala ere, azken edizioetan, alde hori maila baxuagoan kokatzen da. Hala eta guztiz ere, ED13an, mutilen eta nesken balioak edizio guztien artetik baxuenak dira.

Kontrako muturrean, hasierako mailan, neskek mutilek baino ehuneko txikiagoak izan dituzte beti, hain zuzen ere, mutilek baino % 7,4 / 8,9 gutxiagoko taldea osatzen dute. ED13an, ED10 eta ED11rekin alderatuta, bi taldeetan ehunekoek gora egin dute. Hala ere, Ebaluazio diagnostikoko lehen edizioan baino baxuagoak dira.

b) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan sexuen arabera ikasleen banaketaren bilakaera

3.1.2.d grafikoa ED09, ED10, ED11 eta ED13 edizioetan Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduko hiru mailetan nesken eta mutilen ehunekoaren bilakaera adierazten du.

3.1.2.d grafikoa.LH4. ED09-ED10-ED11-ED13. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, errendimendu mailen arabera*



Lehen adierazi dugun moduan, konpetentzia honetan, ED13ko edizioan lehen aldiz, mutilek neskek baino emaitza hobekak lortu dituzte. Hori dela eta, gertaera horrek errendimendu mailen arabera oso eragina izango duela uste dugu.


Maila aurreratuan, ikusten da nesken kopurua mutilena baino handiagoa dela ED09an 2,2 punturekin. Hortik aurrera, hurbilketa gertatu da eta kokapenak alderantzikatu egin dira: ED11n, maila aurreratuan, mutilak neskek baino gehiago ziren, % 0,8ko aldea. ED13an joera hori finkatu egin da 3,8 puntuko aldearekin.

Bestalde, hasierako mailan dauden mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa izaten da. ED09an alde hori 4 puntukoa zen. Hala eta guztiz ere, beste edizioetan, bi taldeen artean aldea orekatu egin da eta ED13an desagertu egin da. Edonola ere, horri dagokionez, nabarmendu beharrekoa da hasierako mailan ia jaitziera egonkorra gertatu dela, bai nesketan, bai mutiletan, eta kopuru horiek erdi-mailan pilatu dira. Joera horrek, batez ere, ED11tik hartu du indarra.

c) *Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan, ikasleen banaketan izandako bilakaera sexuaren arabera*

3.1.2.e grafikoa ED09, ED10, ED11 eta ED13 edizioetan *Matematikarako konpetentzian* errendimenduko hiru mailetan nesken eta mutilen ehunekoen bilakaera adierazten du.

3.1.2.e grafikoa. LH4. ED09-ED10-ED11-ED13. Matematikarako konpetentzian ikasleen errendimendu mailen arabera banaketa.




Konpetentzia honetan, mutilek neskek baino puntuazioa hobeak lortu izana desberdin adierazten da maila bakoitzean. Maila aurreratuan mutilak nagusitzen dira, eta aldea % 2,5 (ED13) eta % 6,3 (ED10) artean dabil. ED10etik, bi taldeen arteko aldean etengabeko gutxitzea gertatu da.

Hasierako mailan, aldiz, edizio guztietan aldea txikia izan da, eta batzuetan nesken eta besteetan mutilen alde izan da, 1 puntuko aldearekin gutxi gorabehera. Gainera, bi sexuetaiko ehunekoak murriztu egin dira, % 14-15etik % 11-12ra. Ondorioz, ohikoa den moduan, nesken taldeak erdi-mailan ugariena izan da edizio guztietan (% 50en gainetik, beti).

d) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziako errendimendu mailetan, sexuaren arabera, ikasleen banaketan izan den bilakaera.

3.1.2.f grafikoak ED09 eta ED13ko edizioetan zehar Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziako hiru errendimendu mailetan nesken eta mutilen ehunekoaren bilakaera adierazten du. Hori dela eta, bi urte besterik ez dituen seriea baino ez da. Horri, neurri batean behintzat, konpetentzia honen jokaera desberdina gehitu behar zaio, paper-euskarririk ordenagailura pasatzearen ondoriozkoa.

3.1.2.f grafikoa. LH4. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziako errendimendu mailetan ikasleen banaketan izan den bilakaera.




Bi edizioetan, neskek mutilek baino jokoera hobea erakutsi dute. Maila aurreratuan, aztertutako bi edizioetan mutilak baino % 5,5 eta % 4,3 gehiago izan dira. Ildo horretatik, hasierako mailan, neskek ED9an 5,7 puntu ordezkapen gutxiago izan dute eta 9,0 puntu gutxiago ED13an.

Ondorioz, esan genezake maila aurreratuan aldea zertxobait murriztu egin dela; hala ere, bi taldeen ordezkapenak 10-11 puntu egin du behera ED09tik ED13ra. Gainera, bi sexuetan hasierako mailako ehunekoek gora egin dute, baina nesken aldeko diferentzia lehen baino handiagoa izan da. Hasierako maila honetan, mutilen ordezkapenak % 10 egin du gora eta neskena % 7 baino gutxiago. Esan genezake konpetentziak bi edizioen artean izan duen puntuazio-jaitiera orokorra zertxobait hobeto arindu dutela.

e) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako errendimendu mailetan ikasleen sexuen araberrako banaketaren bilakaera

3.1.2.g grafikoa ED10 eta ED13 edizioetan zehar Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako hiru errendimendu mailetan nesken eta mutilen ehunekoaren bilakaera erakusten du. Ostera ere serie labur baten datuak ditugu eta horrek mugatu egiten gaitu bilakaera deskribatzeko garaian.

3.1.2.g grafikoa. LH4. ED10-ED13. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian ikasleen errendimendu mailen araberrako banaketa.





Konpetentzia honetan, errendimendu mailetan datu nahiko egonkorrak topatzen ditugu. Bi edizioetan, neskek mutilek baino ehuneko onuragarriagoak lortu dituzte. Maila aurreratuan, aldea 6,7 eta 7,6 puntu artekoa da. Edizio batetik bestera, bi taldeek hobera egin dute, baina batez ere, nesken taldeak.

Hasierako mailan, ED10etik ED13ra, aldean nabarmendu egin da, 6,9 puntutik 8,7 puntura. Igoera hori mutilen taldean maila honetan izan duen gorakadak eragin du; izan ere, neskak egonkor mantentzen dira.



3.2. IKASMAILAREKIKO ADIN-EGOKITASUN EGOERAN EGOTEA

Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek (2003. urtean jaiotakoak) konpetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle gehienak, % 90,9k, adinaren arabera dagokion ikasturtean dago; % 9,1 2003a ez den beste urte batean jaio da, hori dela eta, adin egokiarekiko, hau da, 2003. urtean jaiotakoekiko, urtebeteko edo gehiagoko atzerapena du. Atzerapen horren arrazoiak ikasturteren bat errepikatu izana edo beranduago eskolatu izana izan daitezke. Ikus dezakegun moduan, ikasle horiek, konpetentzia guztietan, adin-egokitasun egoeran daudenek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

3.2.1. ERRENDIMENDUA KONPETENTZIAN 2013AN

Hurrengo taulan, 2013an ebaluatutako konpetentzietan talde horiek lortutako batez besteko puntuazioak ageri da:

	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientzia-kulturako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
Jaiotza-urtea: 2002	217	234	211	200	213
Jaiotza-urtea: 2003 (egokitasuna)	254	263	256	239	254

Konpetentzia guztietan, bi taldeen arteko aldeek 29 puntu gainditu dituzte. Alderik handienak *Matematikarako konpetentzian* (45 puntuko aldearekin) eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (41 puntu) ikus daitezke.

Emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek, 2003an jaiotakoek, 2002an jaiotakoek baino (urtebeteko atzerapena dute) emaitza nabarmen altuagoak dituzte.


Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleen emaitzak Euskadiko batez bestekoaren gainetik daude konpetentzia guztietan, batez beste bi edo hiru puntu gainetik. Hori gertatzen zen lehendik egindako Ebaluazio diagnostikoko aplikazio guztietan eta nazioarteko beste ebaluazioek, PISAk esate baterako, emandako datu guztiekin bat egiten du. 2009, 2010 eta 2011. urteei dagozkien txostenetan aipatu zen moduan, gertaera hori aztertu zen “*Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina*”¹⁹ ikerketan. Bertako ondorioek bat egiten dute ELGAK, PISA azterketako datuetatik abiatuta, planteatutako proposamenekin. Errepikatze-tasak murrizteko beharra hartu da abiapuntu; izan ere, ikasle mota horiek berreskuratzeko ez da oso neurri eraginkorra.

¹⁹ www.isei-ivei.net, Argitalpenak atalean: PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. TIMMS 2007. *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina.*

3.2.2. EMAITZEN BILAKAERA

Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan hiru konpetentzia egonkorretan emaitzek izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, joera berbera antzematen dugu; hau da, adinaren arabera dagokion ikasturtean (adin-egokitasuna) kokatutako ikasleek emaitza askoz hobekak lortzen dituzte konpetentzia guztietan. Joera hori bera ikus dezakegu bi konpetentzia aldakorretan ere.

3.2.2.a grafikoa. LH4. Konpetentzia bakoitzeko emaitzen bilakaera hezkuntza mailaren egokitasunaren arabera.



* Grafikoa eskala 150ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

Nabarmendu beharrekoa da adin-egokitasun egoeran ez dagoen ikasleen taldeak nabarmen egin duela gora konpetentzia guztietan 2009ko datuekin alderatuta. Zehazki, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* nabari da aurrerapenik handiena adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleen taldean. Hobekuntza hori jarraitua izan da Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan zehar.


Joera hori bera ikus dezakegu bi konpetentzia aldakorretan ere, 3.2.2.b grafikoa ikus dezakegun moduan.

2013an, *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian*, % 6 egin du behera bi ikasle taldeen artean zegoen aldeak, batez ere, adin-egokitasun egoeran zeuden ikasleek 2013an emaitzak gehiago txartu dituztelako (14 puntu) adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleek baino (8 puntu).

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren kasuan ere bi taldeen arteko aldea murriztu egiten da adin-egokitasun egoeran ez dagoen taldeak izan duen hobekuntza dela medio. Izan ere, 2010etik 2013ra, emaitzetan 5 puntuko igoera izan du, eta adin-egokitasun egoeran dagoen taldeak, 2013an 2010eko puntuazio berbera mantendu du.



3.2.2.b grafikoa. LH4. Konpetentzia bakoitzeko emaitzen bilakaera hezkuntza mailaren egokitasunaren arabera.



◆ Dagokien ikasmilan dauden ikasleak □ Dagokien ikasmilan ez dauden ikasleak (1 urte)

* Grafikoaren eskala 150ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.





**4. 2009 ETA 2013 ARTEKO HOBEKUNTZA
PROZESUEN AZTERKETA ETA HELBURUEN
LORPEN MAILA.**





Ebaluazio diagnostikoa funtsean hezkuntza-sistemaren eta ikastetxeetako emaitzen etengabeko hobekuntzara dago lotuta oinarrizko konpetentzia bakoitzean. Ebaluazio honen luzetarako izaera, eta beraz, ikastetxe bakoitzeko eta sistemaren emaitzak edizio desberdinen artean berme teknikoekin alderatzeko aukeraren bidez, jakin dezakegu zer ikastetxeen eta ikasleen ehunekok hobetu, okertu edo mantendu dituen emaitzak 2009ko lehen ediziotik 2013an egindako azken aplikaziora arte. Bost ikasturteko aldia da, eta urte horietan, diru publikoekin lagundutako ikastetxe guztiek hobekuntza-planak jarri dituzte martxan, orain arte ebaluazio honetan egindako edizio desberdinetan, eta askotan, konpetentzia bakoitzean lortutako emaitzekin daude lotuta.

2009ko Ebaluazio diagnostikoaren lehen edizioaren garapenarekin batera, Hezkuntza Sailak emaitzak hobetzeko Hobekuntza-plana jarri zuen martxan. Beste hainbat helbururen artean, izaera kuantitatiboko bat planteatzen zen. Ebaluatutako oinarrizko konpetentzien errendimendu mailen 5 puntuko hobekuntzarekin zerikusia du, eta konpetentzia bakoitzeko hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoa bost puntu jaistean eta maila aurreratuan kokatutako ikasleetan ehuneko hori igotzean zehazten da.

Jarraian, hobekuntza-prozesu honen azterketa eta balorazioa egiten da, erreferentzia gisa bi datu hartuta:

1. **Batez besteko emaitza orokorrak.** Ikuspegi honetatik, Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzean, **batez besteko emaitza orokorretan dauden aldean adierazgarritasuna** aztertzen da. Anlisi horren bidez hauxe egiaztatu nahi izan dugu: 2009-2013 aldian, oinarrizko bost konpetentzietako bakoitzean, zenbat ikastetxek puntuazioa estatistikoki nabarmen igo edo jaitsi duten, eta zenbat ikastetxek mantendu diren aldaketarik gabe.
2. **Errendimendu mailak** Errendimendu mailen bilakaeraren azterketa bi alorretan garatzen da. Beren artean koherenteak diren arren, bilakaera honen ondorio osagarriak eskaintzen dizkigute:
 1. **Ikastetxe bakoitzean, hasierako mailan eta maila aurreratuan, ikasleen ehunekoetan izandako bilakaeratik abiatuta,** lehen adierazitako hobekuntzaren % 5eko helburua erreferentzia gisa hartuta. Galdera honi erantzun nahi zaio: *L. Hezkuntzako zenbat ikastetxek lortu dute hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea eta zenbatek lortu dute maila aurreratuan ehunekoa handitzea?*
 2. **EAE mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehuneko orokorren artean alderaketa** eginda. Kasu honetan, erreferentziak ez dira ikastetxeak izan, alderatzen diren bi edizio bakoitzean ebaluatutako ikasleak baizik. Azterketa honetan, bilakaera baloratzeko % 5eko helburua ere erabiltzen dugu. Galdera honi erantzun nahi zaio: *Euskal hezkuntza-sisteman, oro har, zer bilakaera gertatu da 2009 eta 2013 artean Lehen Hezkuntzako 2. mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekoa alderatzen baldin badugu, eta zer neurritan lortu da % 5eko helburua erdiestea?*





4.1. AZTERKETA EMAITZA OROKORRETATIK ABIATUTA. Ikastetxeen puntuazioaren murrizketa eta igoera adierazgarria 2009 eta 2013 artean.


2013ko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako 524 ikastetxek hartu zuten parte. Hala eta guztiz ere, ikastetxe guztietan, edizio honetako emaitzak ezin dira 2009ekoekin alderatu hainbat arrazoi direla eta: aldi honetan, zenbait ikastetxek beste batzuekin bat egin dute, eta ondorioz, desagertu egin dira; eta ikastetxe berriek 2009ko emaitzak falta dituzte. Ikastetxearen tamaina da beste kontu bat; izan ere, ikasle kopuru baxua duten ikastetxeen kasuan, ezin dira behar bezalako bermearekin eta fidagarritasun teknikoarekin bi emaitzak alderatu. Eta azkenik, edizio batean edo bitan, informazio-galera kasuak daude arrazoi teknikoak edo aplikazioan izan diren arazoak direla medio.

Alderaketak egin ezin diren ikastetxe kopurua desberdina da aztertutako kompetentzia bakoitzean: 49 Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, 48 Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, 48 Matematikarako kompetentzian, 52 Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzian (aurrerantzean, Kompetentzia zientifikoa) eta 47 Gizarterako eta herritartasunerako Kompetentzian.

Hurrengo taulak erakusten du, kopuru absolutuetan eta ehunekoetan, 2009 eta 2013 artean, kompetentzia bakoitzean, zenbat ikastetxek igo, mantendu edo murriztu duten puntuazio orokorra modu adierazgarrian:

ED2009-ED2013 LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA	Euskarazko hizkuntza- komunikazioa		Gaztelaniazko hizkuntza- komunikazioa		Matematikarako kompetentzia		Kompetentzia zientifikoa		Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	
	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeak %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeak %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeak %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeak %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeak %
Puntuazioak gora egin du	82	15,6	133	25,4	49	9,4	13	2,5	60	11,5
Puntuazioa ez da aldatu	343	65,5	340	64,9	407	77,7	311	59,4	362	69,1
Puntuazioak behera egin du	50	9,5	3	0,6	20	3,8	148	28,2	55	10,5
Ezin da alderatu	49	9,4	48	9,2	48	9,2	52	9,9	47	9,0
GUZTIRA	524	100	524	100	524	100	524	100	524	100

4.1.a grafikoa. ED13-LH4. Ikastetxeen 2009-2013ko puntuazioen arteko aldaketen ehunekoak.



- Ondoriorik garrantzitsuena da ikastetxe gehienek –hamarretik, sei eta zazpi artean kompetentzia gehienetan– puntuazioa ez dutela nabarmen aldatu.



2. Gainera, oro har, emaitza nabarmen igotzea lortu duten ikastetxeak gehiago dira emaitza nabarmen jaitsi dutenak baino.

Hala eta guztiz ere, ondorio honetan, kompetentzia desberdinen artean alde handia nabari da: *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* eta *Matematikarako kompetentzian*, puntuazioan nabarmen gora egin duten ikastetxeak behera egin dutenen bikoitza dira, eta *Gaztelaniako hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 3 ikastetxek soilik (% 0,6k) okertu dituzte emaitzak eta % 25,4k hobetzea lortu du. *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, igoera- (% 11,5) eta jaitziera (% 9) ehunekoak oso antzekoak dira. Aldiz, *Kompetentzia zientifikoan* nabari da egoerarik okerrrena; izan ere, puntuazioan behera egin duten ikastetxeen ehunekoa 11 aldiz handiagoa da (% 28,2) hobetu dutenena baino (% 2,5). Datu hori bat dator batez besteko puntuazio orokorrak izan duen beherakadarekin; izan ere, 2009an 250 izatetik 2013an 236 izatera pasatu da.

3. Azterketa osagarri bat egin dugu datu horien koherentzia argitzeko eta, oro har, ikastetxeko hobekuntza-prozesuekin erlazionatzeko asmoz. Helburua izan da ~~lizateke~~ bost kompetentzietan, eta bereziki, hiru kompetentzia finkoetan, ikastetxe bateko emaitzen artean loturarik badagoen aztertea. Azterketa egiteko, 2009an eta 2013an bost kompetentzietan puntuazioa duten ikastetxeak soilik hartuko ditugu kontuan. Lehen Hezkuntzako 4. mailako 524 ikastetxetatik, 465 ikastetxetan gertatzen da hori, eta 59tan ez dago kompetentzia baten edo hainbaten daturik edizioeren batean.

Hurrengo taulan eta grafikoan, ebaluatutako bost kompetentzietan puntuazioen igoeraren, jaitzieraren eta mantentzearen arteko lotura ageri da.

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA ED2013-ED2009		Euskarazko hizkuntza-komunikazioa			Gaztelaniako hizkuntza-komunikazioa			Matematikarako kompetentzia			Kompetentzia zientifikoa			Gizarterako eta herritartasunerako k.		
		Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Baxua	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Behera egin du	50	0	0	2	48	0	8	41	1	41	9	0	12	38	0
	Mantendu egin da	0	335	0	1	246	88	10	296	29	95	236	4	34	266	35
	Igo egin da	0	0	80	0	39	41	1	63	16	12	59	9	9	49	22
Gaztelaniako hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Behera egin du	2	1	0	3	0	0	1	2	0	3	0	0	0	3	0
	Mantendu egin da	48	246	39	0	333	0	18	296	19	128	198	7	47	249	37
	Igo egin da	0	88	41	0	0	129	0	102	27	17	106	6	8	101	20
Matematikarako kompetentzia	Behera egin du	8	10	1	1	18	0	19	0	0	15	4	0	5	14	0
	Mantendu egin da	41	296	63	2	296	102	0	400	0	131	261	8	48	305	47
	Igo egin da	1	29	16	0	19	27	0	0	46	2	39	5	2	34	10
Kompetentzia zientifikoa	Behera egin du	41	95	12	3	128	17	15	131	2	148	0	0	36	103	9
	Mantendu egin da	9	236	59	0	198	106	4	261	39	0	304	0	19	244	41
	Igo egin da	0	4	9	0	7	6	0	8	5	0	0	13	0	6	7
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Behera egin du	12	34	9	0	47	8	5	48	2	36	19	0	55	0	0
	Mantendu egin da	38	266	49	3	249	101	14	305	34	103	244	6	0	353	0
	Igo egin da	0	35	22	0	37	20	0	47	10	9	41	7	0	0	57

Azterketa hau gehiegi ez luzatze aldera, kompetentzia guztietan joera antzekoa baita, adibide bat ikusiko dugu azterketaren ardatz gisa *Matematikarako kompetentziaren* emaitza hartuta:



- a. Hasteko, 400 ikastetxek (% 86k) mantendu dute puntuazioa kompetentzia honetan. Horien artean, gehienek mantendu dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (296), *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (296) eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* (305). Zertxobait gutxiago *Kompetentzia zientifikoan* (261). Hau da, 2013an *Matematikarako kompetentzian* puntuazioa aldaketa nabarmenik gabe mantendu duten ikastetxe gehienek gainerako kompetentzietan ere ez dute puntuazioa nabarmen aldatu. Hala ere, kasu guztietan, ikastetxe kopurua nabarmen baxuagoa da.

Baina *Matematikarako kompetentzian* puntuazioa mantendu duten 400 ikastetxe horietatik, 63k puntuazioa hobetu dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*; aldiz, 41ek okerrera egin dute nabarmen. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* kasuan, 102k egin dute hobera eta 2k baino ez okerrera. *Kompetentzia zientifikoaren kasuan*, behera egin dutenak gehiago dira (131) gora egin dutenak (8) baino. Aldiz, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, puntuazioa igo edo jaitsi duten ikastetxeen ehuneko ia-ia berbera da (47 eta 48, hurrenez hurren).


- b. Bigarrenik, 2009 eta 2013 artean, *Matematikarako kompetentzian*, 19 ikastetxek puntuazioan nabarmen okerrera egin dute. Horien artean, 8k *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, puntuazioan behera egin dute, eta 1ek soilik *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 15ek *Kompetentzia zientifikoan* eta 5ek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*.
- c. Azkenik, 46 ikastetxek puntuazioa nabarmen hobetu dute *Matematikarako kompetentzian*. Horien artean, 16k gora egin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ere, 27k *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 5ek *Kompetentzia zientifikoan* eta 10ek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*.

4. Azken finean, hurrengo taulan eta grafikoan ikus daitezkeen moduan, lehen taldean, ebaluatutako bost kompetentzietan puntuazioa mantendu duten ikastetxeen % 25 baino gehiago dago, eta % 36k mantendu egiten dute batzuetan eta igo egiten dira gainerako kompetentzietan. Orotara, puntuazioan nabarmen behera egin ez duten ikastetxeek osatutako talde honek osatzen du ikastetxeen % 60. Baina ikastetxeen heren batek baino zertxobait gehiagok osatutako beste talde batek kompetentzia bakar batean ere ez ditu emaitzak hobetu, eta bakarren batean emaitzak jaitsi ere egin ditu. 2009 eta 2013 artean bost kompetentzietan emaitzak nabarmen hobetu dituzten Lehen Hezkuntzako 4. mailako bi ikastetxe bakarrik daude, eta ez dago kompetentzia guztietan behera egin duenik.

Kompetentzien emaitzen arteko lotura. Lehen Hezkuntzako 4. maila	Kopurua	%	Taldearen %
Bostetan gora egin du	2	0,4	0,4
Lauretan gora egin du eta bestean mantendu egin da	4	0,9	35,5
Hiru kompetentzietan igo egin da eta beste bietan mantendu egin da	21	4,5	
Bitan igo egin da eta beste hiruretan mantendu egin da	45	9,7	
Batean igo egin da eta beste lauretan mantendu egin da	95	20,4	
Mantendu egin da guztietan	119	25,6	25,6
Batean behintzat igo egin da eta batean behintzat jaitsi egin da	41	8,8	8,8
Batean jaitsi egin da eta beste lauretan mantendu egin da	76	16,3	29,7
Bitan jaitsi da eta hirutan mantendu da	40	8,6	
Hirutan jaitsi da eta bitan mantendu da	20	4,3	
Lautan jaitsi da eta batean jaitsi da	2	0,4	
Bostetan behera egin du	0	0,0	
Guztira	465	100	100



4.1.b grafikoa. LH4. Ikastetxeko puntuazioen arteko lotura oinarriko konpetentzietan: 2009-2013.



5. Egoerak nabarmen egiten du hobera edizio guztietan ebaluatutako hiru konpetentziak soilik hartzen baldin badira kontuan. Kasu honetan, hamar ikastetxetatik ia bederatzik puntuazioa mantendu dute ebaluatutako hiru konpetentzietan, edo batzuetan mantendu eta gainerako konpetentzietan igo egin dute. Hori dela eta:

- a. 13 ikastetxetan (% 2,7) emaitzek nabarmen egin dute gora hiru konpetentzietan 2009 eta 2013 artean;
- b. ikastetxeen % 36,6k gora egin du konpetentzia batean edo bitan, eta mantendu egin da gainerakoan;
- c. ikastetxeen erdiak inguruk (% 47,4) emaitzak mantendu egin ditu ebaluatutako hiru konpetentzietan;
- d. % 12,9k ez du konpetentzia bakar batean ere gora egin eta baten batean behera egin du, eta ikastetxe bakar batek behera egin du hiru konpetentzietan.

Konpetentzien emaitzen arteko lotura. Lehen Hezkuntzako 4. maila	Kopurua	%	% taldekatuta
Gora egin du hiruretan	13	2,7	2,7
Gora egin du bitan eta bestean mantendu egin da	46	9,7	36,6
Gora egin du batean eta beste bietan mantendu egin da	127	26,8	
Mantendu egin da guztietan	224	47,4	47,4
Igo egin da batean edo bitan, eta jaitsi egin da batean	2	0,4	12,9
Behera egin du batean eta beste bietan mantendu egin da	52	11,0	
Behera egin du bitan eta bestean mantendu egin da	8	1,7	
Behera egin du hiruretan	1	0,2	
Guztira	473	100	100

4.2. AZTERKETA ERRENDIMENDU MAILETATIK ABIATUTA.

Dagoeneko adierazi dugun moduan, 2009ko Ebaluazio diagnostikoko lehen edizioko emaitzen aurkezpenarekin batera, hobekuntza-helburua proposatu zen Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzerako eta euskal hezkuntza-sistema osorako. Bi erreferentzia-puntu osagarrietan zehazten zen:

- 5 puntuko beherakada hasierako mailako ikasleen ehunekoan.
- 5 puntuko goiera maila aurreratuko ikasleen ehunekoan.

Jarraian, datu hori bi ikuspegitatik aztertzen da: etapa honetako ikastetxeetan errendimendu mailen arabera ehunekoetan izandako bilakaerarekin lotuta eta Euskadiko ehuneko orokorrekin lotuta.

4.2.1. HASIERAKO MAILAN ETA MAILAN AURRERATUAN, IKASTETXEEN ARABERA, BILAKAERA IKASLEEN EHUNEKOETAN.

Azterketa honek lehen egindako galderari erantzun nahi dio: *Lehen Hezkuntzako zenbat ikastetxek lortu dute hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea eta zenbatek lortu dute maila aurreratuan ehunekoa handitzea?* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hobekuntza-prozesuen irudia lortzeko helburuarekin.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, ebaluazio honetako lehen ediziotik bost ikasturte igaro ostean, ikastetxeetan bi helburuen betetze maila desberdina da:

	Lehen Hezkuntzako 4. maila ED2009-ED2013	Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako kompetentzia		Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako kompetentzia		Matematikarako kompetentzia		Kompetentzia Zientifikoa		Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Hasierako mailako ikasleak	5 puntu baino gehiago egin du behera	218	43,4	368	73,3	203	40,4	98	19,5	157	30,9
	3 eta 5 puntu artean egin du behera	31	6,2	44	8,8	48	9,6	26	5,2	44	8,7
	3 puntu baino gutxiago egin du behera	25	5,0	29	5,8	31	6,2	16	3,2	34	6,7
	Behera egin du guztira	274	54,6	441	87,8	282	56,2	140	27,9	235	46,3
Maila aurreratuko ikasleak	5 puntu baino gehiago egin du gora	121	24,1	209	41,6	176	35,1	82	16,3	226	44,5
	3 eta 5 puntu artean egin du gora	35	7,0	43	8,6	30	6,0	22	4,4	26	5,1
	3 puntu baino gutxiago egin du gora	21	4,2	23	4,6	35	7,0	15	3,0	20	3,9
	Gora egin du guztira	177	35,3	275	54,8	241	48,0	119	23,7	272	53,5

- *Hasierako mailan:*
 - Ikastetxeen % 40k baino gehiagok lortu dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (% 43,4) eta *Matematikarako kompetentzian* (% 40,4) planteatutako helburua eta lau ikastetxetatik hiruk inguruk lortu du *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (% 73,3). Bi kompetentzia aldakorretan, egoera nabarmen okerragoa da; izan ere, ikastetxeen % 20k soilik lortu dute helburua *Kompetentzia zientifikoan*, eta % 30ek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*.
 - Ikastetxeen erdiek baino gehiagok lortu dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (% 54,6), *Matematikarako kompetentzian* (% 56,2) eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* (% 46,3) hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoa murriztea. Muturreko



kasuak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* gertatzen dira, % 90 ingururekin, eta *Kompetentzia zientifikoan*, % 27,9k soilik lortu dute ehunekoaren punturen batean murriztea.

- Horrek esan nahi du, oro har, eta *Kompetentzia zientifikoan* salbu, bilakaera negatiboa erakusten duten ikastetxeak askoz ere gutxiago direla; izan ere, hainbat kompetentzian hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoan gora egiten dute. Aipagarria da ikastetxe kopuru handi batek bost puntu baino gehiago handitu duela maila honetan kokatutako ikasleen ehunekoaren: 149 ikastetxe *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 25 *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 120 *Matematikarako kompetentzian*, 277 *Kompetentzia zientifikoan* eta 179 *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*. Datu guztiak 109 eta 110 ikus daitezke.
- *Maila aurreratuan:*
 - Planteatutako helburua lortzeari dagokionez, hainbat egoera antzeman daitezke: bi kompetentzietan, ikastetxeen % 40 gaitzetea lortu da (*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*, % 41,6rekin eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia*, % 44,5ekin). *Matematikarako kompetentzian* berriz, ikastetxeen heren batek soilik lortu du helburua. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, lau ikastetxetatik batek hobekuntza-helburuak lortu ditu, eta *Kompetentzia zientifikoan* % 16,3k soilik egin du gora 5 puntu maila honetako ehunekoan.
 - Ikastetxeen erdiak inguruk maila honetan hobekuntzaren bat lortu du ikasleen ehunekoan *Matematikarako kompetentzian* (% 48), *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (% 54,8) eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* (% 53,5). *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, ikastetxeen heren batek lortu du; aldiz, % 23,7k soilik lortu du *Kompetentzia zientifikoan*.
 - Maila aurreratuaren kasuan, egoera ez da hasierako mailan bezain positiboa; izan ere, bi kompetentzietan soilik gertatzen da hobekuntzaren bat lortu duten ikastetxeen kopurua altuagoa izatea maila honetan ikasleen ehunekoetan okerrera egin dutenena baino. Nabarmengarria da ikastetxe kopuru handi batek bost puntu baino gehiago murriztu duela maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoaren: 228 *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 126 *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 182 *Matematikarako kompetentzian*, 317 *Kompetentzia zientifikoan* eta 164 *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*. Datu guztiak 109 eta 110 orrietan ikus daitezke.

Balorazio orokor gisa, adierazi beharrekoa da hiru kompetentzietan, 2009an hasitako prozesuak joera ona erakusten eta nolabaiteko oreka erakusten duela bi errendimendu-mailen hobekuntzan (*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*, *Matematikarako kompetentzia* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia* kasu). *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, joera hobea da hasierako mailari dagokionez, maila aurreratuari dagokionez baino, eta *Kompetentzia zientifikoan*, bilakaera ez da oso egokizatzen hartzen. Datu horiek argi erakusten dute ikastetxeetan hobekuntza-planen inguruan lan gehiago egiten jarraitu behar dela.

4.2.2. IKASLEEN EHUNEKOEN ARTEKO ALDEAK ERRENDIMENDU MAILEN ETA KOMPETENTZIEKIN ARABERA 2009 ETA 2013 ARTEAN EUSKADIN.

Atal honetan, hasieran egindako galderari erantzun nahi zaio hobekuntza-planean planteatutako helburuaren betetze maila orokorra egiaztatzeko helburuarekin: *Euskal hezkuntza-sisteman, oro har, zer bilakaera gertatu da 2009 eta 2013 artean Lehen Hezkuntzako 4. mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoaren alderatzen baldin badugu, eta zer neurritan lortu da % 5eko helburua erdiestea?*

Jarraian, bost grafiko ageri dira, eta horietan, ehunekoak ikus daitezke mailen eta aldean arabera. Hurrengo grafikoak ondo interpretatzeko eta % 5eko helburuaren arabera baloratzeko, beharrezkoa da kontuan izatea 2009 eta 2013ko edizioei dagozkien ehunekoaren arteko aldeak negatiboa izan beharko




lukeela hasierako mailaren kasuan. Horrek esan nahiko luke ikasle gutxiago dagoela mailan. Eta positiboa izan beharko luke maila aurreratuari dagokionez. Azken horrek esan nahiko luke konpetentzia maila hori egiaztatzea lortu duten ikasleen kopuruak gora egin duela.

Konpetentzia bakoitzeko egoera, errendimendu mailekin lotuta, oso desberdina da batzuen eta besteen artean. Alor batzuk nabarmendu beharko lirateke:

- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* da (4.2.2.b grafikoa) da jokaerarik onena duen konpetentzia; izan ere, maila aurreratuko ehunekoak ia % 2 handitzea lortu du eta hasierako mailakoa nabarmen murriztea lortu du, % -11,6. Argi dago konpetentzia honen ehunekoak, 2013an, ikasleen ehunekoaren igoera ekarri beharko lukeela maila aurreratuan, erdi-mailan dauden ikasleen murrizketarekin. Hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak oso baxua izateaz gain, pentsa dezakegu oso zaila litzatekeela datozen edizioetan nabarmen murriztea.
- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* (4.2.2.a grafikoa) jarrera kontraesankorra erakusten du: Batetik, hasierako mailan kokatutako ikasleen % 2,3ren beherakada positiboa nabarmendu behar da. Hori ikusten zen ikastetxeen erdiak baino gehiagok ehunekoak hobetu zituztelako. Bestetik, maila aurreratuari dagokionez, nabarmen egin du okerrera. 2013an, konpetentzia maila horretako ikasleetan % 4,5 egin da behera.
- *Matematikarako konpetentziak* (4.2.2.C grafikoa) hobekuntza erakutsi du hasierako mailan, 2,6 puntuko murrizketarekin. Aldiz, maila aurreratua ez da aldatu, baina joera negatibo arina erakutsi du maila honetan kokatutako ikasleen kopuruak, 0,6 puntu egin baitu behera.
- *Konpetentzia zientifikoan* (4.2.2.d grafikoa) ikusten da bilakaerarik negatiboena (horixe bera adierazi dugu beste ataletan ere). Maila aurreratuan 10,6 puntu galdu dira eta hasierako mailan 8,6 puntu egin dute gora ikasleen ehunekoan.
- *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (4.2.2.e grafikoa) datu kontraesankorrak ageri dira, baina Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikusitakoaren kontrako joeran. Izan ere, maila aurreratuak hobera egin du, 1,9 puntuko igoerarekin, eta hasierako mailak okerrera egin du, 2013an, ikasleetan 1,2 puntuko igoera izan baita.


4.2.2.a grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailen arabera






4.2.2.b grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera

Gaztelaniazko Hizkuntza komunikazioan: 2009-2013




4.2.2.c grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera

Matematikarako kompetentzian: 2009-2013




4.2.2.d grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian: 2009-2013.





4.2.2.e grafikoa. LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia: 2009-2013.



LH4. ED2009-ED2013. Oinarrizko kompetentzietako hasierako mailako ikasleen ehunekoa murrizten duten eta maila aurreratukoa igotzen duten ikastetxeen ehunekoak.							
Hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoak:				Maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak:			
Euskarazko Hizkuntza komunikazioa	N	%	%	Euskarazko Hizkuntza komunikazioa	N	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	218	41,6	43,4	5 puntu baino gehiago egin du behera	228	43,5	45,4
3 eta 5 puntu artean egin du behera	25	4,8	5,0	3 eta 5 puntu artean egin du behera	31	5,9	6,2
3 puntu baino gutxiago egin du behera	31	5,9	6,2	3 puntu baino gutxiago egin du behera	35	6,7	7,0
Ez dira aldatzen	20	3,8	4,0	Ez dira aldatzen	31	5,9	6,2
3 puntu baino gutxiago egin du gora	31	5,9	6,2	3 puntu baino gutxiago egin du gora	35	6,7	7,0
3 eta 5 puntu artean egin du gora	28	5,3	5,6	3 eta 5 puntu artean egin du gora	21	4,0	4,2
5 puntu baino gehiago egin du gora	149	28,4	29,7	5 puntu baino gehiago egin du gora	121	23,1	24,1
Guztira	502	95,8	100	Guztira	502	95,8	100
Ezin da alderatu	22	4,2		Ezin da alderatu	22	4,2	
Guztira	524	100		Guztira	524	100	
Gaztelaniazko Hizkuntza komunikazioa	N	%		Gaztelaniazko Hizkuntza komunikazioa	N	%	
5 puntu baino gehiago egin du behera	368	70,2	73,3	5 puntu baino gehiago egin du behera	126	24,0	25,1
3 eta 5 puntu artean egin du behera	29	5,5	5,8	3 eta 5 puntu artean egin du behera	29	5,5	5,8
3 puntu baino gutxiago egin du behera	44	8,4	8,8	3 puntu baino gutxiago egin du behera	49	9,4	9,8
Ez dira aldatzen	14	2,7	2,8	Ez dira aldatzen	23	4,4	4,6
3 puntu baino gutxiago egin du gora	15	2,9	3,0	3 puntu baino gutxiago egin du gora	43	8,2	8,6
3 eta 5 puntu artean egin du gora	7	1,3	1,4	3 eta 5 puntu artean egin du gora	23	4,4	4,6
5 puntu baino gehiago egin du gora	25	4,8	5,0	5 puntu baino gehiago egin du gora	209	39,9	41,6
Guztira	502	95,8	100	Guztira	503	90,8	100
Ezin da alderatu	22	4,2		Ezin da alderatu	22	4,2	
Guztira	524	100		Guztira	524	100	



Matematikarako kompetentzia	N	%		Matematikarako kompetentzia	N	%	
5 puntu baino gehiago egin du behera	203	38,7	40,4	5 puntu baino gehiago egin du behera	182	34,7	36,3
3 eta 5 puntu artean egin du behera	31	5,9	6,2	3 eta 5 puntu artean egin du behera	34	6,5	6,8
3 puntu baino gutxiago egin du behera	48	9,2	9,6	3 puntu baino gutxiago egin du behera	34	6,5	6,8
Ez dira aldatzen	25	4,8	5,0	Ez dira aldatzen	11	2,1	2,2
3 puntu baino gutxiago egin du gora	38	7,3	7,6	3 puntu baino gutxiago egin du gora	30	5,7	6,0
3 eta 5 puntu artean egin du gora	37	7,1	7,4	3 eta 5 puntu artean egin du gora	35	6,7	7,0
5 puntu baino gehiago egin du gora	120	22,9	23,9	5 puntu baino gehiago egin du gora	176	33,6	35,1
Guztira	502	95,8	100	Guztira	502	95,8	100
Ezin da alderatu	22	4,2		Ezin da alderatu	22	4,2	
Guztira	524	100		Guztira	524	100	
Konpetentzia zientifikoa	N	%		Konpetentzia zientifikoa	N	%	
5 puntu baino gehiago egin du behera	98	18,7	19,5	5 puntu baino gehiago egin du behera	317	60,5	63,1
3 eta 5 puntu artean egin du behera	16	3,1	3,2	3 eta 5 puntu artean egin du behera	18	3,4	3,6
3 puntu baino gutxiago egin du behera	26	5,0	5,2	3 puntu baino gutxiago egin du behera	36	6,9	7,2
Ez dira aldatzen	15	2,9	3,0	Ez dira aldatzen	12	2,3	2,4
3 puntu baino gutxiago egin du gora	40	7,6	8,0	3 puntu baino gutxiago egin du gora	22	4,2	4,4
3 eta 5 puntu artean egin du gora	30	5,7	6,0	3 eta 5 puntu artean egin du gora	15	2,9	3,0
5 puntu baino gehiago egin du gora	277	52,9	55,2	5 puntu baino gehiago egin du gora	82	15,6	16,3
Guztira	502	95,8	100	Guztira	502	95,8	100
Ezin da alderatu	22	4,2		Ezin da alderatu	22	4,2	
Guztira	524	100		Guztira	524	100	
Gizarterako eta herritartasunerako K.	N	%		Gizarterako eta herritartasunerako K.	N	%	
5 puntu baino gehiago egin du behera	157	30,0	30,9	5 puntu baino gehiago egin du behera	164	31,3	32,3
3 eta 5 puntu artean egin du behera	34	6,5	6,7	3 eta 5 puntu artean egin du behera	21	4,0	4,1
3 puntu baino gutxiago egin du behera	44	8,4	8,7	3 puntu baino gutxiago egin du behera	36	6,9	7,1
Ez dira aldatzen	18	3,4	3,5	Ez dira aldatzen	15	2,9	3,0
3 puntu baino gutxiago egin du gora	50	9,5	9,8	3 puntu baino gutxiago egin du gora	26	5,0	5,1
3 eta 5 puntu artean egin du gora	26	5,0	5,1	3 eta 5 puntu artean egin du gora	20	3,8	3,9
5 puntu baino gehiago egin du gora	179	34,2	35,2	5 puntu baino gehiago egin du gora	226	43,1	44,5
Guztira	508	96,9	100	Guztira	508	96,9	100
Ezin da alderatu	16	3,1		Ezin da alderatu	16	3,1	
Guztira	524	100		Guztira	524	100	



5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA





5.1. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA: BALIO ERANTSIA HANDIA ETA TXIKIA DUTEN IKASTETXEAK

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazio honetan ikasleak zein ikastetxeak lortutako emaitzaren eta haien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arteko erlazio argia dago. Dena den, txosten honetan ikusi dugun moduan, ezaugarri horrek ez ditu geruzen arteko alde guztiak balioz gabetzen; izan ere, azaltzeko gaitasuna handia izan arren, mugatua da.

Emaitzetan eragin argia duten beste faktore eta aldagai batzuk ere badaude. Horien artean, “*balio erantsia*” izeneko aipatu behar dugu, ikastetxeak duen hezkuntza-ekintza dela eta. Balio horrek benetan lortutako emaitzen eta, ezaugarri sozialen, ekonomikoen eta kulturalen arabera, talde edo ikastetxe jakin baterako espero litekeen lorpenaren arteko aldea erakusten du. Erantzun nahi den galdera da ikastetxe batek bere ikasleen maila ekonomikoa eta soziokulturala kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobeak lor ditzakeen.

Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurunea kontuan izanik eta ikasleen familien ezaugarri sozioekonomikoak direla-eta, espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiak garapen-aukera berdinak edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna.

Jarraian, barreiadura-grafiko bat ageri da. Bertan, ikastetxe bakoitzak duen lekua irudikatzen du puntu bakoitzak, EDI3an *Matematikarako konpetentzia*²⁰ lortutako puntuazioaren arabera –ardatz bertikala– eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera -ardatz horizontala-. Kontuan izan ikastetxe berberako ebaluatutako talde guztiak hizkuntza-eredu berberekoak ez diren arren, ikastetxe hori puntu bakar batek ordezkaturiko duela, ikastetxeko batez besteko ISEKen arabera.

Bestalde, grafikoaren atzealdea lau atal bertikaletan dago banatuta. Kolorea zertxobait desberdina da, eta bakoitza ISEK banatzen den lau taldeetako bati dagokio: baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua. Dakigun moduan, ISEKeko talde bakoitzak ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen % 25 ordezkatzeko du.


Gainera, kolore gorriko lerro batek gurutzatzen du grafikoa; *Matematikarako konpetentziaren* erregresio-lerroa da. Esan genezake lerro horren gainetik dauden ikastetxeek ISEK mailaren arabera espero zitekeena baino puntuazio hobea lortu dutela, baita alderantziz ere, hau da, lerro gorriaren azpitik daudenek ez dute esperotako puntuazioa lortu. Hala eta guztiz ere, ikastetxe bat ISEKen arabera, errendimenduari dagokionez espero daitekeen eremuaren baitan kokatzeko, puntuazioak erregresio-lerroko ± 15 puntu inguruko marjinan egon beharko du.

Honako hau litzateke grafikoaren informazioa interpretatzeko modu erraza: lerro bertikalaren eta horizontalaren ebakiduraren emaitzak diren lau koadranteetan arreta jartzea:

- Goiko ezkerreko koadrantean daude batez bestekoa baino ISEK indize baxuagoak izan arren, konpetentziaren batez bestekoa baino errendimendu altuagoa lortu duten ikastetxeak.
- Goiko koadrantean, batez bestekoa baino ISEK maila altuagoa duten, eta era berean, batez bestekoa baino puntuazio altuagoa duten ikastetxeak biltzen dira.
- Beheko ezkerreko koadrantean, ikastetxeen ISEK mailak eta konpetentziako batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak ageri dira.

²⁰ *Matematikarako konpetentzia* erabili da, egindako analisisen arabera, berak beste konpetentzietako emaitzekiko korrelazio-maila handiagoa duelako eta, gainera, hizkuntzako ez den konpetentzia izateagatik, hizkuntza-ereduaren edo familia-hizkuntzaren aldetik eragin gutxiago jasotzen du eta.

- Beheko eskuineko koadrantean, batez bestekoa baino ISEK maila altuagoa izan arren, *Matematikarako konpetentzian* batez bestekoak baino errendimendu baxuagoa lortu dutenak ageri dira.



Grafikoaren irakurketatik ondorio batzuk atera daitezke:

- 1. ISEK mailaren eta emaitzen arteko lotura baieztatu egiten da.** 5.1.a grafikoa argi erakusten du joera hori. Erregresio-lerro diagonalaren inklinazioan ikus daiteke: zenbat eta inklinazio handiagoa, emaitzen eta ISEK-en arteko lotura handiagoa. Bestalde, ikus daiteke emaitzen sakabanaketa handiagoa dela ISEK maila baxuko ikastetxeen artean gainerakoen artean baino (*Matematikarako konpetentzian*, esaterako, ISEKeko maila honetan daude emaitzarik onena eta txarrenea lortu duten ikastetxeak. Ikastetxe horiek, gainera, maila sozioekonomiko eta kultural antzekoa dute).

Alderik handiena ISEK maila ertain-baxua eta ertain-altua duten ikastetxeen artean gertatzen da. Horietan nabari da pilaketarik handiena eta bi ISEK maila horiei dagozkien zatiak ISEKeko muturreko mailetakoa zatiak baino askoz ere laburragoak dira (dagoeneko adierazi den moduan, ISEKeko maila bakoitzean ikastetxe kopuru berbera kokatu da, % 25).

- 2. Ikastetxeek ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzea lor dezakete.** 5.1.a grafikoa ikus daiteke zenbait ikastetxek ISEK maila berbera izan arren oso emaitza desberdinak lortu dituztela. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslana eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolokoa izanik ere, bere esku-hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake. Laburbilduz, ikastetxe bateko ikasle motak eta familia- eta gizarte-ezaugarriek eskola-

errendimendua baldintzatu dezakete, baina mugatu ez dute egiten, eta hasiera batean onak ez ziren alderdiak ondu ditzake ikastetxeak.

“Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarri eta jardunbide egokiei” txostenean, ISEI-IVEIk eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) talde batek egindako ikerketaren lehen emaitzan, ebaluatu diren oinarritzko kompetentzietan ISEK mailaren arabera espero zitekeena baino puntuazio altuagoa lor dezaketen Euskal Herriko ikastetxeen ezaugarri garrantzitsuak topa daitezke.

- 3. Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude.** Ikastetxe gehienak, % 66,5, erregresio-lerroaren inguruan daude (ISEKen arabera esperotako puntuazioa). Ehuneko hori esperotako puntuazioaren gainean edo azpitik 15 puntu inguru dituzten ikastetxeekin kalkulatu da; ondorioz, zuzenaren inguruan edo horren azpitik pilatzen dira.

ISEKen arabera lortutako eta esperotako puntuazioaren arteko aldea	ED I I		ED I 3	
	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeen ehunekoa	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeen ehunekoa
Esperotakoa baino 25 puntu gehiago lortu dituzte	32	6,1	18	3,4
Esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte	51	9,7	51	9,8
Esperotako puntuak lortu dituzte (aldea +/- 15 puntu)	349	67	348	66,5
Esperotakoa baino 15-25 puntu gutxiago lortu dituzte	49	9,4	73	14
25 puntu edo gehiago lortu dituzte esperotakoaren azpitik	40	7,7	32	6,1

Ez dugu ikastetxe baten ISEKi buruzko informaziorik.


Ebaluatutako ikastetxe guztien % 3,4k (18 ikastetxe) ikasleen ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak kontuan hartuta espero zitezkeen emaitzak 25 punturekin edo gehiagorekin gaintzen dituzten batez besteko emaitzak lortu dituzte, eta % 6,1 (32 ikastetxe) erregresio-lerroaren azpitik kokatzen da; izan ere, esperotakoa baino gutxienez 25 puntu gutxiago lortu ditu.

Aurreko ikastetxeetako bi taldeen ezaugarriak alderatzen baldin baditugu, ikusiko dugu puntuazioa ISEKen arabera esperotakoa baino 25 puntu baxuagoa duten ikastetxeetan indize sozioekonomiko eta kultural baxuarekin lotutako egoerak gertatzen direla: ikasle-etorkin kopuru handiagoa (batean % 17 eta bestean % 3), ikasleen % 10 gehiago adin-egokitasun egoera gabezia (batean % 82 eta bestean % 92) eta etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen ehuneko txikiagoa (batean % 13 eta bestean % 59). Ikastetxe horien % 78 sare publikoari dagokio.

Ikastetxeen % 10en inguruk (51 ikastetxe) esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte; ondorioz, ISEKen arabera esperotako puntuazioa ordezkutzen duen zuzenaren gainean kokatzen dira. Ikastetxeen % 14k (73 ikastetxe) ez du bere indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera esperotakoa lortu, eta ondorioz, zuzenaren azpitiko kokatzen da.

5.1.b grafikoa, argiago ikus daiteke informazio hau guztia: hainbat lerro jarri dira ikastetxe bakoitzeko ISEKekin lotuta esperotako puntuazioa nabarmentzeko.

5.1.b grafikoa. ED13-LH4. Matematikarako kompetentziaren emaitzen eta ikastetxeiko ISEK mailen arteko lotura.



Lehen Hezkuntzako 4. mailako *Matematikarako kompetentziako* emaitzei zuzendutako txosten honetako 2.4 atalean ikus daitekeen moduan, kompetentzia honetako 2013ko puntuazioa -253 puntu- 2011n lortutako baino nabarmen baxuagoa da -255 puntu-. Puntuazioan izandako okertze hori aurreko taulako ikastetxeen ehunekoetan ere islatzen da: esperotako puntuazioa 25 punturekin baino gehiagorekin gainditu ahal izan duten ikastetxeen erdia dago 2013an, 2011ko datuekin alderatuta (% 6,1 2011n eta % 3,4 2013an). Aldiz, ISEK-en arabera esperotakoak baino 25 puntu gutxiago lortu dituztenak oso ehuneko hurbiletan kokatzen dira (% 7,7 2011n eta % 6,1 2013an). Era berean, ISEK-en arabera esperotakoa baino 15-25 puntu dituzten ikastetxeen ehunekoa handiagoa da (% 9,4 2011n eta % 14 2013an). Gainerako datuek egonkor jarraitzen dute.

2013an esperotako puntuazioari dagokionez, +/- 15 puntutan dauden ikastetxeen ehunekoa 2011koaren berbera da ia-ia.